

...eta!  
**Kitto!**

2016-XI-11

992 zkia.



# Forjarien kanta

## HERRIKO MUSIKALA

gama altuko  
2 mō betaurreko  
progresibo

197€

[www.multiópticasgipuzkoa.com](http://www.multiópticasgipuzkoa.com)

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta litzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Eringo da beste eskaintza batzuetan erabiliz.



Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



## Hitzaldia

**“ATSEGIN BEHAR DUZUN LEHENENGO PERTSONA ZU ZEU ZARA.  
Kirurgiadun eta kirurgiarik gabeko teknika estetiko berrienak”**

**Azaroak 16** PORTALEA UDAL KULTUR ETXEA  
asteazkena **EIBAR**, 19:30. Sarrera doan.

**ISRAEL VILLENA ETA OSCAR OROZCO,**  
EIBARKO POLICLINICA GIPUZKOAKO ZIRUJAU ESTETIKO, PLASTIKO ETA KONPONTZAILEAK

# “Lortzen ditugun emaitza naturalak dira gure bezeroek gehien nabarmentzen dutena”

Eibarko Policlínica Gipuzkoa zentroko Israel Villena eta Oscar Orozco zirujau estetiko, plastiko eta konpontzaileek kirurgiadun eta kirurgiarik gabeko teknika estetiko berrienak azalduko dituzte, azaroaren 16an, asteazkena, antolatuko den urteko azken Osasun Ikasgelan.

“Atsegin behar duzun lehenengo pertsona zu zeu zara” da Policlínica Gipuzkoaren 2016ko azkeneko Osasun Ikasgelaren izenburua. Azaroaren 16an izango da Portalean 19:30etik aurrera, eta bertan, Israel Villena eta Oscar Orozco zirujau estetiko, plastiko eta konpontzaileek kirurgiadun eta kirurgiarik gabeko teknika estetiko berrienak azalduko dituzte.

“Osasun Ikasgela honen izenburua esanguratsua da, pazienteak guregana datozenean ez baitira euren buruarekin gustura sentitzen, haurdunaldi bat izan dutelako, ondorioak utzi dizkien istripuren bat izan dutelako, pisua asko galdu dutelako edo gorputzeko hainbat ataletan koipe lokalizatua dutelako, edo urteak bete ahala ez dutelako euren burua nahi bezain ondo ikusten”, diote Villenak eta Orozcok, gehituz, “ezinbestekoa da pertsona horiei euren buruarekin berriz ere eroso eta harmonian sentiarazteko tratamenduak eskaintzea”.

### KIRURGIADUN ETA KIRURGIARIK GABEKO TRATAMENDUAK

“Kirurgiarik gabeko teknikak aurpegia gaztetzeko tratamenduetan erabiltzen ditugu batik bat: azalaren kalitatea hobetu eta zaintzeko, biguntasuna, elastikotasuna, distira, zimurrak... tratatzeko. Ohikoenak botox-a, hari tentsoreak, azido hialuronikoa, peeling-ak... izaten dira. Interbentzio ambulatorioak dira, eta azkarrak, 20 minutu inguru irauten dute, eta emaitzak oso onak dira”, azaldu dute espezialistek.

“Kirurgiarekin gehien eskatzen diren tratamenduak bularra handitzea eta gorputz-ingurua hobetzearekin lotutakoak dira, hala nola, liposukzioa eta abdominoplastia”, diote Villenak eta Orozcok. “Gizonen kasuan, zaindu arren gune zehatz bateko koipea erretzea lortzen ez dutenek liposukzioa eskatzen dute. Paziente hori da, hain zuzen ere, tra-



VILLENA ETA OROZCO POLICLINICA GIPUZKOAKO KIRURGILARI PLASTIKOAK

tamendu mota horrentzako egokiena, baina ez gehiegizko pisua duten eta argaltzea nahi duten gizonentzat, liposukzioa gune lokalizatuetan gehiegizko koipea kentzeko delako”.

### ALDAKETA FISIKOAZ GAIN, ALDAKETA PERTSONALA ERE BAI

“Tratamenduak fisikoak dira, baina pertsonetan ere igartzen ditugu aldaketak. Poztasun eta ziurtasun handiagoarekin ikusten ditugu. Azken finean norbere buruarekin gustura egoteak izaeran eta erlazionatzeko moduan ere eragina dauka. Horregatik, pozez betetzen gaitu konplexuekin eta bere buruarekin deseroso etorri zen pazienteak segurtasuna eta galduta zuen irribarrea berreskuratu dituela ikusteak”, amaitu dute zirujauak.

**“Kirurgiarik gabeko teknikak batik bat aurpegiko tratamenduetarako eskaintzen ditugu, azalaren kalitatea hobetu eta zaintzeko, biguntasuna, elastikotasuna, distira, zimurrak... tratatzeko. Interbentzio ambulatorioak dira eta 20 minutu inguru irauten dute”**

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**

erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**

elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia  
Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**

Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA**

**MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belauztegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Ana Aizpuru

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhua Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – Gaztaiñerre eguna 2016 Eibarren –

Dakizuen bezala, azaroaren 14an, Gaztaiñerre eguna ospatuko dugu Eibarren. Urtero bezala, AEK-k antolatuta du ospakizuna eta guri, B2ko ikasleoi, tokatu zaigu zuek guztiok gonbidatzea.

Paloma tabernan arratsaldeko 7etan elkartuko gara, eta bertan, hildakoen omenez, ondra-jana egingo dugu. Jatekoa doan izango da, baina edaria bakoitzak bere ordaindu beharko du.

Ondra-janaren ostean kalejira egingo dugu Urki auzoan, musika-eskolako trikitilariak eta Eibarko emakumeen koruak girotuta.

Danok zaudete gonbidatuta. Etorri Gaztaiñerre eguna ospatzera eta gurekin mintza-praktika egitera.

Anima zaitzete!

**AEK-ko eguerdiko B2 mailako ikasleak**

## – Historia errepikatu egiten da –

Gaur, azaroak 11, Albert Parsons, August Spies, Adolph Fischer eta Georg Engel urkatu zituztela 129 urte bete dira. Bezperan, hiltzera kondenatuta zegoen bosgarren gizona, Louis Linng, bere ziegan hil zen, bertsio ofizialak oraindik ere "arrarotzat" jotzen duen egoeran. Estatu Batuetan 1886ko maiatzaren 1ean deitu zuten lehenengoz greba orokor mugagabea, lanaldi amaitezina murrizteko premiaren aurrean 8 orduak eskatzeko: lan egiteko, atseden hartzeko, disfrutatzeke. Eta grebaren epizentroetako bat Chicago industrializatua izan zen.

Maiatzaren 3an, 1.000 langilek gora kaleratu berri zituen Mc Cormick enpresa parean ehundaka behargin zeudenean, poliziak tiro egin eta 6 hil zituen. Hurrengo egunean, Haymarket plazako protestan, polizia han batuta zeudenen kontrako erasoak hastean, bonba batek eztanda egin zuen. Atzetik etorri ziren sindikatu buruen atxiloketak, komunikabideek zirikatuta zuten fartsa baten hasiera baino ez ziren izan. "Ezarrirako ordenarekin amaitu nahi duen elkarte sekretuko kide" izateagatik, proba eta lekuko faltsuak tartean, Chicagoko 5 martiriak urkamenian hiltzera kondenatu zituen epaiketak amaitu zuten fartsa.

Kapitalak ez zuen gertakari konkretuen gaitzespenik bilatzen, baizik eta etenbariko gehiegikeria eta desberdintasunen aurrean langileria antolatuta eta horri erantzuteko edozein aukera suntsitzea.

Maiatzaren Lehena urtero gogoratzea eragin duten

gertakarietatik 130 urte pasatu eta gero, kontrol sozialerako interes ekonomiko berberak eragiten dute horien kontra arlo politiko-sindikaletik joan nahi duen edozein langileri egingo zaion jazarpena.

Rafa Diez eta Andres Bodalo, ezagunenak izan arren, izebergaren punta baino ez dira, izaera sozialeko erreibindikazioen harira zigorrak eskatzea gero eta maizago gertatzen da eta.

Patronalak traban dauden erakunde sindikalekin amaitzeko ahaleginetan ari dira, bakarrik eros ditza-ketenak lagatzeko. Azken hauek, gainera, botereari aurre egiteko baino kapitalak langileak kontrolatzeko erreminta dira. Denetarik egiten ahalegindu dira: sindikatu batzuk legez kanpo lagatzea, Eusko Jaurlaritzaren bazterketa... eta, zoritxarrez, horrelakoak errepikatu egingo dira.

Horregatik da horren garrantzitsua Georg Engelek epaiketan esandakoa gogora ekartzea, gaur inoiz baino gehiago: "Nik ez dut kapitalisten kontra indibidualki borrokatzen, pribilegioa ematen duen sistemaren kontra baizik. Nire desiorik biziena langileek euren etsaiak eta euren lagunak zeintzuk diren jakitea da. Beste guztia mespretxatu egiten dut, mespretxua diet gobernu zitaren botereari, bere polizia eta bere zelatariei, ez dut ezer gehiago esateko".

**Eibarko LAB**

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LEGAR.-** Hartxintxarra, urak edo elurrak xehetutako harri txikia. "Legarra errekiak batzen daben tokixa, Legarre".

**LEGEN.-** Azaleko gaitza. "Legena, berakatzakin kentzen dala esaten dabe".

## astean esanak

"Game of Thrones telesailaren Euskal Herriko grabazioa spoiler-joko bilakatu da (zer ikusiko dugun aurreratzea). Nor-nor baino gehiago ibili dira segurtasun neurriak gaitzitu eta ahal zituzten irudi guztiak grabatu eta saseratzen. Baina zertarako balio du horrek? Atzerriko hedabideak harriduta daude. Denok espero genuen zaleak litzuruz inguruan ikustea protagonisten argazkia noiz lortuko, baina nik behintzat espero ez nuena zen kazetari profesionalak ikustea paparazien moduan. Eta guzti hori, zertarako?"

(JOSU WALIÑO, INFORMATIKARIA)

"Nire bizitzako hilabeterik txarrenak pasa nituen Opusen lanean. Iritsi bezain pronto hasi nintzen hartutako erabakiaz damutzen. Lehenengo egunean bertako langileak ez agurtzeko esan zidaten, inolako ziorik eman gabe. Ez zuten garbitzaileok gure presentziaren berri ematerik nahi. Gainontze koentzatz ez ginen existitzen; ikusiezina ginen guztiz. Gainera, lankideok ezin genion elkarri lagundu. Behin, nire eginbeharrak jada amaituta nituela lankide bati zorugarbigailuaren ontzia betetzen hasi nintzaion, eta errieta egin zidaten, ezin nuelako halakorik egin. Horretaz landa, garbiketa saileko arduradunak salatari bana zeukan talde guztietan"

(CARMEN MARIN, OPUSEN GARBITZAILE ARTIUA)

"Bartzelonako Paralinpiar Jokoetan jabetu nintzen gerrak egiten dituen kalteaz; pentsaezinak egiten zitzaizkidan gaixotasunak ikusi nituen. Iran, Irak eta Amerikako Estatu Batuetako kirolariak gogoratzen ditut: batzuk gorputz atal bat erazi eta gutxira heldu ziren Bartzelonara. Gerran erabili zituzten gasen eraginak izugarri harritu ninduen: kirolari horiek ez zuten azalik, eta giharrak ikusten zitzaizkien. Sendatu gabe zeuden asko; ez dugu ezer ikasi. Bestela, paralinpiarrok besteak baino formalagoak izan ginen Bartzelonan: ez zegoen hainbeste mozkor. Gizarte honetan gutxiengoak gogotik borrokatu behar du edozer gauza"

(ANA ROSA AGIRIANO, PARALINPIKOA)



EVA PEREZ DE ALBENIZ

## Untzagako afera

Ostirala, arratsaldeko 5tak. Untzagako harmailetan jarrita nago. Umeak eskola bukatu eta lagunekin jolasean dabilta, harrapaketa batzuk, kromoekin besteak, patinetean eta futbolekin hainbat. Untzagako jubiletzeko sarrera diseñatu zuenak bi porteria bikain eraiki zituen, justu justu sarrerako atean biak. Eta umeak sena garbia dutenez, porteria hoietaz jabetzen dira eta beraien partiduak han oinarritzen dituzte. Egia da kartel eder bat jarri dutela han bertan "futbolekin jolastea debekatuta" esaten duena baina... naturari hesiak jartzea ezinezkoa da eta zuria eta botilan... esnea. Ordu horretan bertan Untzagako jubiletzeko korduak ensegua dauka eta poliki poliki abeslariak hitzordura hurbiltzen dira. 70, 75, 85, 85 urteko abeslariak. Batzuk tente tente doaz eta beste batzuk lagun baten besotik edo makulua lagun dutela. Oreka eta estabilitatea soberan ez daukate askok. Unai gola sartzeko aukera bikaina dauka, antxitxiketan hurbildu da porteriara eta... ostikada indartsua eman dio baloiari... justu Elena langa azpitik pasatzen den momentua da... eta baloia belarri ondok pasatzen zaio, haren zitzua entzun du belarri gogor samarra euki arren. Ufff eskerrak, albotik pasa zaio baloia baina ez da ezer gertatu! Hau da Untzagako arratsalderoko afera. Belaunaldi arteko harremanak hainbeste saldu nahi dizkiguten sasoi honetan hemen daukagu aukera bikaina gaia era naturalean lantzeko. Jubiletzea ezin da lekuz mugitu, futbol partiduak debekatzea ez da aukera bat. Zer egin ba? Neri ideia bakarra okurritu zait, reglamentuzko baloi zakar horien ordez pitxigomazko baloiak erabiltzea. Jarri zuen sormena dantzan eta bota ideiak, ea denon artean belaunaldiak hurbiltzen ditugun.

## Gaur hasiko da Tripontziak ekimena

Debegesak Debabarreneko Tripontziak ekimen gastronomikua III. ediziñua ipiñi dau martxan. Gaurtik hasita, azaruaren 27ra arte egingo da eta, horren harira, Debabarreneko Klub Gastronomikoko kide diran eskualdeko hainbat establezimenduk menu eta pintxo landuak prezio berezitan eskinduko dittue: Tripontziak Menuak 25 eurotan eta Tripontziak Pintxoak 5 eurotan (2 pintxo eta 2 edari). Ediziño honetako parte-hartzaillak Belaustegi jatetxea (Elgoibar), Calbeton jatetxea (Deba), Lasturko Taberna, Urgain jatetxea (Deba), Kanala jatetxea (Itziar), Azitain Erretergia (Eibar), Kultu taberna (Eibar) eta Mendaroko Txokolateak (Mendaro) dira. Establezimendu bakoitxaren eskintza debabarrenaturismo.com webgunian kontsultatu leike. Ekimenarekin "tokiko eta sasoioko produktuen kontsumoa indartzea, sektoriari bultzada ematia eta gure produktu eta establezimenduak sustatzia" nahi dabe.



Horrekin batera, sare sozialetan lehiaketak antolatu ditu Debegesak, Debabarrena Turismoren profilen bittartez (Twitterren, Instagramen eta Facebooken). Twitterren eta Instagramen, erabiltzaillak argazkizak partekatu biharko dittue euren "Tripontziak" momentua erakusteko, txioan #Tripontziak etiketia erabillita eta taberna edo jatetxiaren izena aittatuta. Facebooken, barriz, nahikua izango da Debabarrena Turismoren orrialdera sartu (facebook.com/DebabarrenaTurismo) eta orrixaren goiburuan proposatutako galderari zuzenian erantzutia. Sare soziale-tatik kanpora be egongo da sarixa eskuratzeko aukeria, taberna edo jatetxian Tripontziak zozketako kupoia eskatu eta datuekin batera entregauta. Parte hartzen dabenen artian sari bikai-ñak zozketatuko dittue: Tripontziak egonaldixak, bi lagunendako Tripontziak Menuak eta Mendaroko Txokolatien produktu-sortak.



**eskillara mekanikotan ipiñiko dabe 'Stop & Go' sistemian: Tiburtzio Anitua eta Bustinduitarren arteko 3 eskillaretan, Legarreko azken eskillaren eta Errebaletik Jardinetara doiazten beste 5 eskillaratan. Biharren aurrekontua 21.096 eurokoa da. Aurretik be 18 instalaziño mekanikok darabille sistemian.**

## Enpanada eta Magosto jaixa euripian

As Burgas Galiziako Etxe-kuak antolatuta aurreko **asteburuan** Urkizun egin



zan Enpanada eta Magosto jaixa euripian ospatu bihar izan eben, zapatu zein domekan aterruna gitxi egon zan eta. Edozelan be egun bixetan egon zan enpanada zein gaztaiña erreka jateko aukeria, parkian ipiñi zittuen karpak emondako babesari esker. Galiziako Etxiak 80 bat bazkide dakaz gaur egunian eta, horrekin batera, 120 bat laguntzaille. Urtero ospatzen daben Magosto jaixa gure Gaztaiñerreren parekoa da eta aurten 300 bat kilo gaztaiña banatu dittue.



## Auzo-billerak hasi ziran haraiñegun, behelaldeko bizilagunekin

Hillaren 9xan Coliseoan ekin zetsen Udalak urtero antolatzen dittuen auzo-billerei. Haraiñegungo billeran erdi-beheko, Jardinetako, Estaziñoko eta Matsarixako bizilagunak jua ziran eta atzo Untzagako Jubilatuen Etxian egin zanera erdikaldekuak. Datozen aste bixetan egingo diran beste bost billerekin itxiko dittue aurtengo auzo-billerak. Holan, datorren astian hiru egingo dira: martitzenian Beheko Tokixan izango dabe hitzordua Karmen, Urkizu eta Barrenako bizilagunak, eguaztenian ekitaldixotan parte hartzen daben ordezkari politikua eta teknikarixak San Andres ospitalera juango dira Legarreko eta inguruken eskaeriak jasotzeko, eta eguenian Amañako parroixian auzo horretakuen kezka eta aholkuak entzutera. Hurrengo asteko martitzenian, hillaren 22xan, Ipuruako biztanlien



proposamenak jasoko dittu udal ordezkariak auzo horretako Jubilatuen Etxian. Eta aurtengo billeren txandarekin amaitzeko, hillaren 23an Urkiko parroixian bilduko dira auzo horretakua. Aittatutako zazpi billerok ordu berian hasiko dira, arratsaldeko 19:00etan.

## 12 urteko gaztetxuaren heriotza ikertzen dihardue

Aurreko astiaren eguaztenian Urkizun hil zan 12 urteko mutikuaren heriotza ikertzen dihardue Ertzaintzak eta Adingabien Fiskaltzak. Eibartarron artian samiña sortu daben gertakariaren inguruan zabaldutako ikerketian ez da iñolako hipotesirik baztertu. Halanda be, Seguratsun Saillekuak ez dabe informaziñorik aurreratu nahi eta kasuak "luze" joko dabela iragarri dabe. Aldi berian, azaldu dabenez oingoz ez dago "zantzurik gaztetxuak jazarpeta jasotzen zebanik" esateko eta heriotza horrekin lotzeko. Itturri judizialen arabera, Ertzaintzaren argibide txostena jasotzeko zain dagoz urrats gehixago egitteko eta, horrekin lotuta, hainbat deklaraziño hartzia ez dabe baztertu. Herrittarori, bestalde, bai Udaletik eta baita beste erakundietatik be, "zurumuruak eta halakuak baztertu eta gaztetxuaren famelixari laguntzeko" eskatu dabe.

## autuan

### Estaziñokuen afarixa

Afarixa antolatu dabe hillaren 19rako kale horretan jaixotako, txikittan bizi izandako eta gaur egun bizi diranendako. Datorren asteko zapatuan kale horretako Valle tabernan egingo dan afarixan parte hartu nahi daben lehenbailehen emon bihar dau izena tabernan bertan. Afarixa 22:00etan egingo da eta aurreko poteua 20:00etan hasiko da Valletik. Afarixaren prezia 20 euro da.

### Garbitzailien mobilizaziñuak

Aste osuan greban dihardue EHU eta Bigarren Hezkuntzako azpikontratako garbitzailiak eta Zumaia eta Hernaniko udal zentruetako bihariñak, ELA, UGT, LAB, ESK eta CCOO sindikatuak deittuta. 2014. urteko abenduaz geroztik langille honen lan-baldintzak erregulatzeko hitzarmenik ez daguala eta, hori aldatzeko asmuarekin egin dittue protestak.

"Tipi-Tapa, Korrika"  
LAN BERRIAREN

ESTREINALDIA

AZKEN SARRERAK  
SALGA! (8 euro)


EL TIO PALANÇAS (JUAN GISASOLA)  
DENETIK (URKIZU)  
eta GOZOKI

PURRITX,  
PORROT  
eta MARI MOTOTS

(BIDEBARRIETA eta  
SOSTOATARREN) eta  
TXARTELDEGIAN  
BERTAN

azaroak 12  
ZAPATUA  
16.30 eta  
19.00

azaroak 13  
DOMEKA  
16.00 eta  
18.30





## Don Pedro Zelaia memoriala zabaldu dabe

Atzo arratsaldian zabaldu eben urte birik behin antolatzen daben Don Pedro Zelaia memoriala, Toribio Etxebarria kalia. Herriko parrokixa guztien partehartzia dakan tonbolia boletu guztiak saldu arte zabalduko dabe, aste barruan 10:30etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta asteburuetan, barriz, 11:00etatik 14:00etara. Boleto bakoetak euro bat balixo dau eta, erosten dabenak, horrekin sarixa zuzenian jasotzeko aukeria eukiko dau eta bestela be, saririk ez daken txar-teletan izen-abizenak eta telefonua ipiñitta, tonbolia amaitzian egingo daben zozketan parte hartuko dau. Tonbolia antolatzen daben boluntarixuetako batek esan deskunez, *"250 kopin preparau dittugu, oparitzeko. Betiko moduan Alicanteko fabrika batian erosi dittugu, billuzik, herriko andrak egindako erropekin janzteko. Kopinak ez eze, dendetan oparitu dittuen beste premixu batzuk be irabazteko aukeria egongo da. Eta saritu bako txartelekkin egingo dan zozketan, barriz, beste batzuetan lez hiru otar banatuko dittugu. Aurten, gaiñera, Eroskik perfumerixako produktu ederrak emon deskuz eta hórrek be zozketan oparitzeko asmua dakagu"*. Betiko moduan, tonbolan batzen daben dirua eibartarrak daguezen misiñuetara bialduko dabe, hango proiektueri laguntzeko.



## Iñausketa sasoiarekin dator udazkena

Urtero lez, Eibarko parke, plaza eta kalietan arboletako adarrak mozteko lanak hasi ditu Udalak. Biharrok aurreko astian hasi ziran Untzaga plazan eta urte amaierara arte iraungo dabe. Udal brigadako langillak bateriazko erremintta elektrikuekin dihardue biharrian, hórrek tresnok eskintzen dittuen abantailarekin baliatuta. Lanak auzoka egingo dittue: Untzagatik Urkizu parkeko bi plaza txixixetara pasatu dira aste honetan eta, jarraian, Txontako eta Galizia Pasealekuko zuhaitzetako adarrak moztuko dittue. Hórrek amaituta, Julian Etxeberrian, Amañan eta Legarren egingo dittue lanok, Otaola etorbidea, Ipurua, Urki eta Miguel de Aginagara jua aurretik. Iñausketa Azittainen eta Barrenan amaituko dabe.



Lehen faseko lanak etorbide eta kale haundixenetan egingo dira, geruago toki zihaztetako momentuko biharri edo traba egiten detselako bizilagunak eskatutako kasuekin jarraitzeko. Iñausketan erabiltzen diran erremintta barrixak iaz estrenatu zittuen eta, eurei esker, *"akaberia hobia emoten jakue adarri, lanian zarata gitxiago etarutzen da poluziñua gitxitiaz gain, eta bihargiñak eurak be errazago egitten dabe biharra ergonomia aurrerapena dala-eta"*. Birziklapena sustatzeko eta, aldi berian, ingurugirua zaintzeko, moztutako adarrak Elgoibarren daguan Urruzunoko bertededora eruango dittue. Horko %95 birrindu egingo da, horrekin konposta egitteko, eta beste %5 garbigunietan gordeko dabe konpostazailiak daken pertsonak erabiltzeko aukera izan deiken.



## Sarixa jaso dau Orbeak

Eibarren sortu zan Orbea enpresiak **"Made in Euskadi"** sarixa jaso dau oingo astian Bilbon egin dan Euskal Enpresaren Gabaren XXV. ediziñuan. Munduan zihar euskal industria zabaltzeko biharrian dihardueneri eskerrak emoteko sarixa Jon Fernandez, Orbeako zuzendari nagusixak jaso eban. Ekitaldixan esandakuaren arabera, premixuak ilusiño haundixa egin detse. Sarixa banatzeko ekitaldixan, bestiak beste, Unai Rementeria Bizkaiko ahaldu nagusixa eta Arantza Tapia sailburua egon ziran eta beste sari batzuk be banatu zittuen: Anton Pradera Jauregi CIE Automotive-ko presidentiak Euskal Enpresari Onenari sarixa hartu eban; Enpresa Barrikuntza sarixa, barriz, Ibarria Innovatek jaso eban eta Euskal Makilarekin Trapagako Bombardier Transportation enpresaren 15 urteko ibilbidixari aitortza egin zetsen. Ekitaldixan enpresa munduko 300 bat ordezkari alkartu ziran, tartian Jose Luis Novoa Amerixako zuzendarixa.

## Bardintasunerako gune ibiltarixa

Aurreko zapatuan andra eta gizonen arteko desberdintasunaz berbetan jardun eben Untzagan, Emakunderen "Berdintasunerako Gunea" izeneko topaketaren harira Euskadiko Guztion Onerako Ekonomiaren Elkartek (GOE-EBC) sortutako hausnarketarako gunian: Untzagan, herririk herri dabillen autobusaren barruan, Begoña Pecharroman antropologuak taillarra eskindu zetsen parte hartzera animau ziran herritarreri.





TUTULUMENDI



IDURRE  
 IRIONDO



## Ibon Muñoaren aldeko kanpaina

Aurreko zapatuan aurkeztu eban Eibarko Sarek Ibon Muñoa preso eibartarraren eskubidien alde Eibarren hasiko daben kanpaina, Arrate Kultur Elkartearen. Agerraldixan esandakua araber, "Ibonen kasuan bi eskubide urraketa nabarmen ikusten dittugu: dispersiñuarena batetik eta legedi berezixarena bestetik. Horregaittik kanpainaaren goiburua bikoitza izango da, '#StopDispertsioa / Ibon Etxera', eta eibartar ikutua emoteko kurutzetxua dakan hatzamar salatzaill hori erabilliko dogu euskarri bezala".

Ointxe hasi eta San Juanak bittartian hillero ekitaldi esanguratsuren bat egittekko asmua dake eta, oiñ arte, pare bat ipiñi dittue martxan: azaruaren 19xan Eibarko 1. Berakatz-zopa Txapelketia egingo da. Partehartzia libria izango da, baiña "partaidetzarik zabalena" izateko herriko alkarte gastronomikuekin harremanetan ipiñi dira, parte hartzera animatzeko. Izena emoteko eta bete biharreko baldintzak begiratzeko Deporrek barran karpeta lagako dabe. Eta bigarren ekitaldixa abenduaren 27xan izango da, Coliseoan. Egun horretarako hainbat abeslari eta musikarirekin jaialdixa prestatzen dihardue.

## Akademixetako eskintza Untzagako karpan

Asteburuan Eibarko Akademien II. Azoka egingo da Untzagan, karpan. Bixar egun guztian egongo da zabalik, 10:30etatik 20:00etara eta domekan, barriz, bakarrik goizetik egongo da zabalik, 10:30etatik 14:00etara. Bigarrenez egingo dan azokia Udalaren Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza sailaren ekimenez zabalduko dabe eta antolatzailliak helburu bikoitza dakela diñue: "Azokan parte hartuko daben enpresak herritarreri gerturatzia eta ezagutzera emotia eta, horrekin batera, herrixan formaziñorako dittugun zentruen eskintza zabala ikusteko aukeria emotia". Izan be, Eibarren azken urtitan formaziñorako aukera barrixak asko ugaritu dirala pentsatzen dabe: "Bestiak beste, hiriburuetatik kanpora normalian topatzen ez dittugun heziketa-eskintza daken hainbat zentru zabaldu dittue, hizkuntzak eta bestelakuak oso ume txixixekin lantzeko, eta jendiari horrelakuen barri emon nahi detsagu". Horren harira umiendako jarduerak eskintzeko asmua dake azokan bertan.



## JESUS M.ª ANSOLA ZIGORRAGA

2016ko azaroaren 4an hil zen

**FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA** gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

**Bere aldeko irteera meza ospatuko da hilaren 13an (domekan), 12.00etan hasita, San Andres parrokan**

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, azaroak 25, hainbat ekintza antolatu dira herrian, adibidez "macho-maris" ikuskizuna. Juanma Rodriguezek eta Markos Gimenezek sortutako lan hau feminismoaren bidean dabiltzanei eta inposatutako kode matxistak apurtzeko ahalegina egiten duten gizonen zuzendua dago, batez ere. Autokritika eta hausnarketa bilatzen dute, umorez lantzen dituzten gaiak jorratuz. Showa gaur, barixakua, izango da Portalean 19:30ean.

## MARKOS GIMENO (ANTZETZLEA):

# "Geure buruari barre egiteko eta hausnartzeko aukera ematen dugu"

### - Nola sortu zenuten halako ikuskizun bat?

Juanma eta nik honen aurretik umorezko beste espektakulu bat egin genuen; "hipo y condrias" medizina eta gaixotasunen ingurukoa. Gure umore estiloa gaztelaraz "humor esdrújulo" deitutakoa da, batez ere hitz-jokoetan eta ergelkerietan oinarritzen delako. Zipriztintzen Berdintasunaren Aldeko Ermuko Gizon Taldeak lehenengo lan hau ikusi zuenean, feminismoa eta gizonen papera lantzeko zerbait prestatzeko proposatu ziguten. Maskulinitate berrien ereduak, eta bestelako kontuak gure estiloan, umorez, jorratzea erabaki genuen, izan ere halako gaiak normalean ez dira umore klabeen ikusten. Beraz, enkargua eurena izan zen.

### - Nondik dator "matxo-maris" izena?

Mari-matxo alderantziz. Emakumeei sarritan deitzen zaie mari-matxo, jendartearen emakumearen estereotipoari lotzen ez zaizkien afizioak edo jarrerak badituzte. Eta guk ikuskizun honekin betiko gizonaren irudia jartzen dugu hankaz gora. El Fary-ren "hombre blandengue" esaera ere erabiltzen dugu, behin egindako adierazpenak direla-eta. Hark zioenez, erosketak egiten di-

tuen gizona edota umea zaintzen duena gizon ahula da, "blandenguea".

### - Zer gai lantzen dituzue?

Gauza desberdinak ukitzen saiatu gara 50 minutu inguru irauten duen tartean. Berdintasuna, alderdi femeninoa eta maskulinoa (denok baititugu bi alderdi hauek), hizkuntza sexista, "sindikalistoa" eta ezkerreko militanten matxismoa (publikoan oso ezkertiarak eta pribatuan...), gizonen mugimenduak, zainketa, jubilazioa (emakumeak eta gizonak desberdin jubilatzen baitira), amatasuna (gizonak "haurdun gaude" esaten dueneko adibidez), homosexualitatea, bikote tradizionalak, futbola, mikro-matxismoak...

### - Nolako harrera izaten du publikoaren?

Oso ondo joaten da beti, jende desberdina etortzen da, eta kontuak umorez tratatzen ditugunez, horrek beti erakartzen du. Guk ez dugu mitinik ematen, kontu serioa da baina umorez tratatzerik ere badagoela erakutsi nahi dugu. Ikasteko aukera ere ematen du eta geure buruari barre egiteko eta hainbat konturen inguruan hausnartzeko. 20 aldiz baino gehiago taularatu dugu lana, normalean berdintasun sailek deitzen



digite. lazko martxoan adibidez, ikuskizun asko egin genituen, azaroan ere bai, eta ekainaren 28aren bueltan ere bai. Euskal Herrian ez ezik, Estatu mailan ere ibili gara. aurreko larunbatean adibidez, Casa la Reina egon ginen eta Errioxa aldetik Logroñon ere izandakoak gara. Sant Boi de Llobregat-en ere izan ginen, Katalunian, Espainiako gizon taldeen topaketetan.

### - Eta Ermuko gizon taldeak nolako ekintzak egiten ditu?

Barne formakuntzak, topaketak Euskal Herriko gainerako gizon taldeekin eta egun seinalatuetan kalera irteten dira, besteak beste. Adibidez, maiatzaren 17an (homofobia, transfobia eta bifobiaren aurkako nazioarteko eguna), ekainaren 28an (LGTBI harrotasunaren eguna) edota urriaren 21ean (berdintasunaren aldeko gizonen eguna). Ermuko mugimendu feministarekin ere harremana daukate eta ekintzak antolatu izan dituzte batera, adibidez, jaietarako tratuen aldeko plataforma sortu zuten.

## IDOIA URIGUEN OSA

I. URTEURRENA (2015-XI-8)

**"Zuk erakutsitako indarra eta bizipoza bidali guri.  
Beti izango zaitugu gure bihotzetan"**

ZURE FAMEILIXAK





# URAREN BIDEZ ongizateari ateak zabaltzen

**D**iagnostikatu gabeko gaitxotasunak dituzten Eibar-ko umeen gurasoen eskutik sortu da AFESD elkarte aurturua. Martxoan eman zuten ezagutzera eta, nahi duen jende guztiarentzat ateak zabaltzeko arren, oraingoz bi familiek, urte bi eta erdi dituen Ibairen eta sei urteko Aroaren gurasoek, osatzen dute eta, elkarrekin horren eskutik, Boris Guinzburg sendagile errusiarrak hainbat umerekin fisio-hidroterapia saioak lantzen ibili zen aurreko astean Orbea kiroldegian, spa-ko igerilekuan.

Gaur egun Italian bizi den sendagileak sortu duen "Aquananda" metodoa arazo psikomotorrak dauzkaten 0-6 urte bitarteko umeekin lantzeko egokia da. Horregatik, Ibairen ama den Esti Blancok esandakoaren arabera, sendagileak egiten zuen lanaren eta horri esker lortzen zituen emaitzen berri izan zutenean, "bi-

*rritan pentsatu barik horren in-guruko informazioa bilatzeari ekin genion". Ibairen aita italiarra denez, oportetan hara joaten dira eta, horrela, Borisen lana eta emaitzak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zutela azaldu digu: "Ibairekin Italian bertan probatu genuen eta berehala hasi ginen emaitzak ikusten; metodoari jarraitutako saioak gutxi izanda ere, hobekuntza nabarmentzen zen. Horregatik, hori ikusi eta gero, honaino ekartzea lortu arte ez gara geratu. Izan ere, Ibairen moduko edo antzerako arazoak dauzkaten umei terapia horren onurak probatzeko aukera eskaintzea nahi genuen".*

Aquananda metodoak "fetuak poltsaren barruan daukan bizitza simulatzen du, eta jarrita ere egon ezin den umea tente ipintzeko gauza da". Ibairekin hori zuzenean ikusteko aukera izan dute. 35 urte metodoa lantzen



*Egun gitxitan lortutako emaitzak benetan ikusgarriak direla diote. Besteak beste, zutik jartzera ailegatzen dira umeak.*

dabilen sendagilearen berbetan, "ez dago kontraindikaziorik eta, besteak beste, bihotzeko eba-kuntzak izan dituztenekin lantzen ibili naiz, postoperatorioan. Kasu guztietan probatu dutenek hobera egin dute".

Horrelako emaitzarik ez omen da ikusten bestelako terapiak erabilia. Sendagilearekin batera Italiatik etorritako Manuelak 10 urte daramatza metodoa Elsa alabarekin jarraitzen. Kontatu digunez, "sendagilearengana lehe-

nengoz jo genuenean nire alabak ez zuen muskulu-masa zantzurik ere, baina terapiarekin hasi eta oso denbora laburrean emaitzak oso agerikoak ziren. Muskulu-masa sortzen hasi eta, horri esker, gaur egun alabak duen bizikalitateak eta bere osasunak ikaragarri egin dute hobera". Hori dela eta, Borisekiko bere esker ona "bizitza osorako" izango dela dio. Italian alabaren izena duen fundazioa dago martxan eta, helburu nagusia, "alabak izan duen aukera hori ahalik eta jende gehienak izatea" da.

Gogotik jardun dute dena antolatzeke lanean eta ikastaroa posible egin dutenei, bereziki Orbea kiroldegia erabiltzen laga dien Felipe Zamakolari, esker-rrak eman nahi dizkiote: "Emaitzak ikusita, aurrera begira metodo hau lantzen jarraitzea gustatuko litzaiguke,; horregatik, egun hauetan hiru lagun formatzen ibili dira eta horretan segitzeko asmoa daukate".



*Aurreko asteko ikastaroan hiru lagun formatzen ibili dira metodoarekin jarraitzeko asmoz*



**Bartolome Egurrola Azpiazu**  
(1926-V-17 / 2012-XI-14)

## 4. URTEURRENA

*Sekula ez zaitugu ahaztuko*  
(Etxekuak)





## Zazpigarren mendera bidian: herrittarrak askeago izatia eskatu ebenetik

1346. urtian, "villa" titulua emon arte, Eibar "anteiglesia" edo elixatia zan, "San Andres de Eibar" izenekua, "Marquina de Suso" bailarakua. Castellako errege zan Alfonso XI.ak Jaendik bialdu eban Urigutun edo "Carta-puebla" pribilegiox-fueruaren bittartez, Eibar "villa" moduan sortu eban, herrixa lehenagotik be bazan arren. Mañé y Flaquer-ek diñuanetz, bertako basarrietakuak eskatutakua izan zan, "*á súplica de los que habitaban en los caseríos de las montañas de aquella tierra*", XIV. gizaldixan zihar, hori izen barrixori erabiltzen hasi zalako. Carmelo de Etxegaraireren esanetan, Gipuzkuako "villen" fundaziñuak bakiaren izenian eta demokrazixa zentzunarekin egin ziran, "*ya que los pueblos trataban de guarecerse a la sombra de los reyes, con el objeto de sacudirse del yugo de los señores de las casas más importantes del País*". Elena Barrenak be segurtasun eza-gaittik eta gatazkak saihestiarren egin ebela-kuan dago, Bizkaiko mugiarren onduan egonda, ganboatarren eta oiñaztarren banduen arteko borrokiak zuzenian hartzen zebelako. Eibarren bi famelixa eguazen inplikaturata halako borroketan, bandu bixetako garrantzitsuenen artian zeguaz-enak gaiñera. Olasokuak alde batetik eta Unzuetakuaq bestetik, euren arteko ezinikusixekin. Arrisku barik eta askatasunian bizi izan nahixaz sortutako "villa" dogu ba Eibar: herri inguruko hormak eta barruko organizaziño juridiko barrixak horretarako ziran.

Aittatutako Kartan, baillarako billa gehixeneri lez, Logroñoeko fueruaren araberako kontzesiñuak egin jakuezen eibartarrerri, batez be "*la capacidad de poder hacer y de no tener que hacer*", askatasunaren eta eskuzabaltasunaren bidetik. Herentzixak eta jabe ziran gauzak gura eben moduan saldu eta erosteko ahalmena emoten zetsen bizilaguneri, eta jauntxuak horregaittik ezin zeikixen ezebez esan. Eta ura,

erregadixo eta errotendako erabiltziaren inguruan, errotak egitteko askatasun haundixa laga eben, fueruak esaten ebalako errotia egittia nahi ebana, bere terrenuetan bazan, libre zala egitteko. Ordurako baeguazan errota batzuk Ego errekiaren hegaletan: Portalekua, Isasikua, Ulsagakua, Ibarakua, Urkizukua eta Unzuetakua. Eta handik aurrera gehixago be egin zittuen, errekan ur askorik ez bazan be.

Mendixetako egurra eta ondasunak erabiltzeko aukeria zabaldu zan orduan, iñongoko zergarik ordaindu barik. Eskua edo deretxua be bazan, herrixan, landu bako lurretan jenerua etaratzeko, eta zelaixak eta larrak ganauendako erabiltzeko. Tributo edo "impuesto" batzuk pagatetik be librau egitten ziran: esate baterako, "sayonia" pagau biharra kendu zetsen (auzibidietan parte hartzen eban jauntxuaren menpeko bihariña zan "sayón" hori eta "fonsadera" edo gerrako gastueri aurre egittetik be libre geratzen ziran. Abilidadia zeken, urtero, alkatia eta agintarixak hautatzeko. Konzejua zan euren batzar modua eta euren gaiñetik eguan bakarria erregia zan. Handik aurrera, urtero etarako zeben alkatia, prokuradore sindikua eta jurado bi eta, daren laguntzaille moduan, eskribau leiala. Alkatia etaratzeko sistema hori, gaiñera, ez zan 1593. urtera arte aldatuko.

Ordura arteko bizilekua aldatu egin zan eta, beste gauza batzuren artian, etxiak eta kaliak zelan egin planifikatzen hasi ziran, kalien inguruan hormak eta torriak aldatzeko. Hormetan, bes-talde, hiru ate egin ziran herrixan sartu eta urte-tzeko. Orduan momentuan kale bakarria eguan, gerora Barrenkale izena hartu ebana; horren kalli-oren inguruan 55 etxe eguazen eta 250 lagun biziko ziran han gitxi gorabehera. Gerora egin ziran beste kale bi: Elgeta eta Txurio, eta kaletan harrizko kalzadia ipiñi eben. Holan, kalia eta basarri ingurua zihero aparte gelditzen hasi zan: ez

bistarako bakarrik, baita bizimoduan be. Basarri ingurukuak ganau, lur eta basuetatik etaratakuarekin bizi ziran artian, kalekuak artisautzan, industrian eta tratuan-komerzixuan jarduten eben gehixena.

**NEREA ARETAREN**  
"Eibarko Efemeridiak"  
liburutik




JESUS GUTIERREZ

### Eibar: historiako 670 urte

1346ko otsailaren 5ean (zapatua zen) Alfontso XI. erregeak hiriek zituzten abantailen karta eman zion San Andreseko elizaurreari, Villanueva de San Andres de Heybar izenarekin batera. Orditik belaunaldi askok hartu digute aurrea gaur egun Eibar moduan ezagutzen dugun espazioa okupatzerakoan eta bizi-baldintzak ikaragarri aldatu dira; gogoeta egiteko, ikusi zenbat kostatzen zaigun gure aitita-amanen eta XXI. mendeko gure bizitzaren artean amankomuneko gauzak aurkitzea. Zer esanik ez hainbat mende atzera egiten badugu! Beste belaunaldi askok jarraituko die -seguruenik- gureari mendiz inguratutako bailara estu honetan bizitzen.

Guztia horrela izanda ere, badira denbora horretan ia aldatu ez diren erreferenteak. Sasoi bakoitzeko beharretara egokitze aldera aldatu beharra izan badu ere, horiek ez dute zerikusirik espazio fisikoarekin, baizik eta denbora horretan izandako gizarte ezberdinekin; guztiek ere 670 urte horietan adimena zorrotz beharrez izan dira bizitzeko erraza ez den gunean irauteko: bailara estua, mendi al-dapatsuak, nekazaritzan jarduteko aukera gutxi... Orduan, zelan jarraitzen du indarrean 2016an Eibarko hiria izena duen elkarbizitzarako proiektuak?

Azalpen bakarria aipatutako belaunaldi guztien konpromisoan dago, hemengo lurrarekin izan duten konpromisoan. Orain guri dagokigu, lehen beste batzuei egokitu zitzaizen moduan, eta etorkizunean beste batzuei helduko zaizen gisara. 1346an hasitako elkarbizitzarako esperientzia horrek bizirik jarraitzen du.





# TXISTUA eta beste instrumentu batzuk elkarrekin JOLASEAN

Urte osoko programazioa eskuan hartu eta, begiratzen hasiz gero, Usartza txistulari taldekoentzat emanaldi berezirik bada, ganbera-kontzertua da hori. Urtean behin egiten dute horrelako emanaldia, beti ere beste musikari batzuen laguntzarekin. Aurtengo ganbera-kontzertua domekan emango dute, 12:30ean, Coliseo antzokian eta emanaldia prestatzeko entseguan harrapatu genituen txistulari taldeko kideak astelehenean, Beistegi eraikinean horretarako erabiltzen duten lokalean.



**Txistu Kontzertua**

Eguna: 2016 / 11 / 13

Tokia: Eibarko Coliseo Antzokian

Ordua: 12:30-etan

Parte-hartzaileak:

**Usartza Txistu Taldea**

Elena Pérez. 1.Txistua  
 Enrique Montero. 1.Txistua

Ainhoa Urkizu. 2.Txistua  
 Iratxe Gimenez. 2.Txistua

Asier Castelos. Silbotea  
 Javier Zorrakin. Silbotea

Íñaki Orbegozo. Atabala  
 Germán Ereña. Atabala

**Pianojolea:** Isabel Laspiur

**Perkusiojolea:** Pablo Zubiaurre

**Soinujolea:** Mari Sol Arrillaga

«Harituz» Hari-Laukotea

Zuzendaria: Elena Pérez

Azken urteotako martxan, oraingoan ere Elena Perezek zuzenduko du kontzertua. Berak aurreratu digunez, "benetan oso kontzertu polita izango da, pieza guztiz ezberdinekin osatutako erreperitorioa prestatu dugu-eta; tartean oso alaiak diren abestiak ere badaude eta jendeari asko gustatuko zaiola pentsatzen dugu, hala izatea espero dugu behintzat".

Txistuarekin batera beste instrumentu batzuk sartzeak bihurtzen du berezia emanaldia. Zuzendariaren berbetan, "programa zabalduko duen 'Agurraz jolasean' abestian, adibidez, pianoarekin oso gauza bereziak egiten ditu Isabel Laspiurrek eta, efektu horiei esker, oso agur berezia izatea lortzen da". Pianojoleaz gain, herriko beste musikari batzuren kolaborazioa izango dute: Mari Sol Arrillagak soina joko du, Pablo Zubiaurrek perkusioa eta Harituz hari-laukoteak ere lagunduko die.

Hamar piezak osatutako egitaraua eskainiko dute: "Agurraz jolasean" (Txistu - Piano), "Atta eta ama" (Txistu - Piano), "Atabalariak" (Txistu taldea), "Ansola anaiak" (Txistu taldea), "Badinerie" (Txistu - Piano), "Txorinoa nora hoa" (Txistu - Piano), "Hala ere" (Txistu - Silbote - Soina), "Ume eder bat" (Txistu - Piano), "Impromptu y capricho" (Txistu - Hari laukotea) eta "Mongono (Izotza)" (Txistu - Hari laukotea).

**Izadi**

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**

CADENA SER

104,0 FM

www.kolorlan.com 667 54 89 16 (Ritxar)

**KOLORLAN**

PINTURAK

*Mikel Rodriguez Alberdi eta Maria de Jesus (zinemazaleak)*

## "Gure lehen film laburra izateko oso ondo geratu zaigulakoan gaude"

Aste honetan, astelehenetik barixakura, "Asier Errasti" Eibarko Film Laburren jaialdian aurkeztutako lanen artean egindako selekzio bat eskaintzen dihardute Coliseo Antzokian. Aurtengoa 17. edizioa da eta bihar, zapatua, emango dira ezagutzera irabazleen izenak. Martitzenean Mikel Rodriguez Alberdi eibartarrak aurkeztutako "Fase REM" filmaren txanda izan zen. 24 urteko gazteak 5 minutu inguruko iraupena duen lana egin du, Maria de Jesus bere bikotekide azpeitiarrarekin batera. Mundu honetan hasi berriak izan arren, esperientzia polita izan dela diote, filmak egiten jarraitzeko asmoa azaltzeaz gain.



**- Hauxe da zuen lehen film laburra. Nondik datorkizue zaletasuna?**

**MIKEL:** Niri beti gustatu zait zine mundua. Aldatzen ikasi ondoren, Elgoibarren Gestio Administratiboko moduloa egin nuen. Bilbon bizi gara orain. Ni oposaketak prestatzen nabil eta Mariak Magisteritza ikasten. Youtuben tutorialak eta bideoak ikusten gidoiak nola egin ikasi nuen eta baditut nik idatzitako gidoiak gorde-ta. Euskal Herriko Zine Eskolan film laburrei buruzko ikastaro bat egin nuen. Gogoia genuen zerbait egiteko baina denborarik ez, eta, azkenean, udan gidoia prestatzen hasi ginen. Irailean, hiru egunetan grabatu genuen dena. Oso baliabide gutxi izan ditugu: mugikor on batekin grabatu dugu dena, mikrofono bat eta lente batzuk erosi genituen, besterik ez.

**- Zer kontatzen duzue filmean?**

**MARIA:** Bikote baten maitasun istorioa da. Ni naiz protagonista eta istorio bat kontatzen dut. Eszena motzak eta independienteak dira eta amaierako eszenak ematen die lotura aurreko guztiei. Jendearen bila ibili ginen baina ez zen inor animatu kamara aurrean agertzeko. Bakioko eszenan lagun baten laguntza izan genuen baina, azkenean bion artean

egin dugu lan guztia kamararen aurrean eta atzean: interpretatu, zuzendu, musika jarri (pianoa nik jotzen dut), gidoia egin... Eibarren, Azpeitian eta Bakion grabatu genuen. San Juan de Gaztelugatzen ere egon ginen, biok selfie-makila batekin autograbatzen.

**- Pozik zaudete emaitzarekin?**

**MARIA:** Lehen aldia izateko, bi pertsona bakarrik eta hain baliabide gutxiarekin, esan beharra dago oso ondo irten zaigula. Herri mailako kategorian bi talde aurkeztu gara lehiaketara, eta zaila bada ere, zergatik ez, irabazteko esperantza daukagu. Ilusioarekin egin dugun zerbait da. Aurkeztutako 111 lanen artean 40 inguru aukeratu dituzte, eta gurea horien artean dago.

**MIKEL:** Orain amaitu berri dugun beste film labur bat Gaztezuloko bideo lehiaketan aurkeztuko dugu eta nire ilobekin grabatu dugu; mutua da, zurbeltzekoa eta pobreziari buruzkoa. Gai hau umeekin landu nahi izan dugu. Honetan ere Mariak pianoa jotzen du. Eibarren eta Euskadi mailan egongo da jendea gauzak egiteko goiarekin eta guk gazte guztiak animatu nahi ditugu gauzak egiteko.

*Unai Alberdi Castro (2016-XI-2)*



**ESKERRIK BEROENAK momentu gogor hauetan gure ondoan egon zareten GUZTIOI.**

**Unairen familia**





## FORJARIEN KANTA: herriari eskainitako musikala

Azaroaren 20an, domekan, "Forjarien Kanta" Musikala iritsiko da Coliseo Antzokira, Eibarko Koru Gaztea eta Eibarko Cielito Musika Bandaren eskutik. Koru Gaztea osatzen duten 19 gaztetxoak irailean hasi ziren entseguak egiten, **Elena Martín** Koruko zuzendariaren gidaritzapean, eta emanaldirako 10 egun inguru falta direnean, urduritasuna eta ilusia soma daiteke: "Ordu asko eman ditugu entsaiatzen eta erronka berri honi aurre egiteko sekulako ilusioarekin dihardugu lanean". Koruko abeslari gazteak, bandako musikariak, 3 dantzari (Mohamed El Ghabali, Leire de Blas eta Marta Riaño)... guztira 50 bat lagun igoko dira taula gainera. Koruko kideentzako esperientzia erabat berria da, abesteaz gain, oraingoan, dantzari eta aktore lanak egin beharko dituztelako. Horrelako zerbait egiteko gogo handia zuten eta emaitza datarren astean Coliseoan eskainiko dituzten bi emanaldietan ikusi ahal izago da.

Goiburua "Forjarien Kanta" izan arren, Musikala osatzen dutenak ez dira euskal kantauak. Izan ere, mundu mailako musikali ospetsuenen kantu ezagunak berreskuratu dituzte. Hala ere, eibartarron espiritua islatzen duen Musikala da: "**Eibar, 80. hamarkada**. Herriko enpresa bat ixteko arriskuan dago. Langabeziaren mehatxuaren aurrean, langileek enpresaren errentagarritasuna aldarrikatu eta irtenbide bat aurkitzen ahaleginduko dira. Langileek eurek firmaren jabetza eskuratzeko beharrezko dirua biltzeko musikal bat ohol-tza gainera ekartzeko baliogarria izan daiteke. Kalerat bota aurretik konponbideren bat aurkitzea lortuko ote dute?".

Musikala adin desberdinetako publikoarentzat erakargarria izango dela uste dute Koruko gazteek. Euren esanetan, "80 hamarkadako gauzak, izenak, erreferentziak agertzen dira. Beraz, garai hartako Eibar ezagutu zutenentzat hunkigarria izango da. Gazteek ere ondo pasatuko dute, kantuak gustukoak izango dituztelako. Kantu guztiak guk aukeratu ditugu, **Carlos Sanchez** Bandako zuzendariaren laguntzarekin. Koreografiak **Sofia Machín** eta **Jone Lahidalga**k prestatu dituzte eta asko landu ditugu. Eta interpretazioa lantzeko ezinbestekoa izan da **Juanma Cano** eta **Maite Lorenzo**k eman diguten laguntasuna. Antzeppen lana ere guretzako zerbait berria izan da eta asko ikasi dugu. Domeketan ere entsaiatzen



Argazkian guztiak ez badaude ere, honakoak dira Koru Gaztea osatzen dutenak: Ainhoa Arroitauregi, Andrea Garcia, Beñat Laskurain, Garazi Aizpurua, Idoia Lahidalga, Iker Machin, Irati Alvarez, Jon Alonso, Jone Atxa, Jone Lahidalga, Julen Leturiondo, Julene Guillen, Marina Laspiur, Mei Martínez, Nagore Cabanzon, Nahia Unceta, Nerea Bolumburu, Oihane Zabala, Sofia Machin. Zuzendaria: Elena Martín.

tzen ibili gara, erritmoa benetan kañeroa izan da. Bidea gogorra izan da, baina kalitatezko lan bat eskaini nahi dugu eta horretarako ezinbestekoa da orduak eta orduak sartzea", azaldu digute Koruko gazteek.

Kantua, zuzeneko musika, elkarrizketak eta dantza nahasten dituen antzerki generoa da Musikala. Gauza asko hartu behar dira kontuan eta, horregatik, Juanma Cano eta Maite Lorenzoren babesa izan dute Musikala prestatzeko. Biek eskarmentua daukate antzerkigintzan, badakite zer den taula gainean egotea, eta "Forjarien Kanta" musikalean ilusio handiarekin busti dira.

**Juanma Cano** Cadena Ser-eko kazetariak sortu du Musikalaren gidioa. Juanma-aren esanetan, "Koruko abeslariak eurek pentsatutako abestiekin etorri ziren, eta hortik aurrera istorioa sortzen joan ginen. Tailerraren ideia proposatu zuten. 80. hamarkadan sartu nintzen eta garai hartako erreferentziak bilatu nituen: kaleak, pertsonaiak, orduko dantza-lekuak... Forjarien Kantan kontatzen den istorioa oso eibartarra da. Denek aportatu dute zerbait eta oso ondo gelditu da. Lan serioa da, ez da bat ere erraza, eta oso gustora egon gara gaztetxoekin lan egiten, gozada bat izan da benetan, errepikatze modukoa".



Antzerki munduak lotzen ditu Juanma Cano eta **Maite Lorenzo**, eta Maitek harreman zuzena du Koruko zuzendariarekin, poesia errezital askotan Elena pianoa jotzera joaten da-eta. Maitek esan digunez, "interpretazio arlorako laguntza eskatu zidaten eta nik oso gustora hartu nuen gonbitea. Askok gustatzen zait dakidana erakustea eta gaztetxo hauekin lan egitea zoragarria izan da (gazteenak 14 urte eta zaharrenak 21 ditu). Primeran portatzen ari dira. Ez da erreza baina, azkenean, aktore lana egiten ari dira. Gainera, nik uste dut beharrezkoa dela haur eta gazteek antzerkia egiteko leku bat izatea. Antzerkia oso aberasgarria da eta gauza asko ikasten dira".

**Bi saio** eskainiko dituzte azaroaren 20an. Lehenengoa 11:00etan hasiko da, eta bigarrena 13:00etan. Sarrerak Coliseoko leihatilan eskura daitezke 5 euroren truke, astelehenean 19:00etatik 20:00etara, eta barixakuan 21:00etatik 22:00etara. [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) bitartez ere eros daitezke. Eta, betiko moduan, emanaldia hasi baino ordubete lehenago ere salgai jarriko dituzte.



Eguneroko bizitzan ohitura osasuntsuak sustatu eta jarduera fisikorako aukeriak zabaltzeko asmuarekin, "Eibar Ibilixan" ekimena ipiñi dabe martxan udaleko Ingurumen eta Kirol sailak alkarlanian, Eibar Martxan proiektuaren barruan. Jon Iraola Ingurumen zinegotzixak eta Felipe Zamakola Kirol Patronatuko zuzendarixak aurreko barixakuan aurkeztu eben Eibarko ibilbide osasuntsuen sarea.



# ibiliXan ...hobetzeko

Horren harira, hiru ibilbide zirkular diseinatu ditue eta hórrek presentatu zittuen aurreko eguneko ekitaldixan. Lehelengo zirkuitua 'erraza' modura izendatu dabe, San Juan-Amaña-San Juan ibilbidia egitten dau (3.700 metro) eta kolore urdiñarekin markatu dabe. Zirkuitu 'ertaiñak', barriz, San Juan-Azitain-San Juan ibilbidia betetzen dau (3.600 metro) eta kolore horiz markatu dabe. Eta zirkuitu 'zaila' (San Juan-Urki-Txonta-San Juan), kolore gorrixarekin markatuta dago eta 4 kilometroko luzeeria dauka. Hiru ibilbidiak ordubete inguruan egitteko modukuak dirala diñue eta hirurak anbulatorixoko parke-tik abiatzen dira. Han ipiñi dabe, hain zuzen be, ibilbidieri buruzko informaziño guztia biltzen daben panela, plano eta guztiz. Horrekin batera, ibilbidiak be seinalizatu ditue, "ññor ez galtzeko eta, bide batez, informaziñua emoteko. Bidian ipiñitako seinaliak, bestiak beste, ibilbidia eskema mo-

duko planuan irudikatuta dake, bere kolorian. Horrekin batera, puntu horretaraiño bete dan distantzia eta egitteko falta dana be jasotzen ditte, norberak bere kalkulak egitten juateko aukeria izan deixin".

Kalian ez eze, ibilbidien gaiñeko informaziñua liburuxka batzutan bildu dabe, udal instalaziñuetan eta jendia ibiltzen dan beste toki batzuetan laga eta, holan, nahi dabenak hartzeko aukeria eukitzeko: liburuxkak hiru ibilbidiak planuan marraztuta, ibilbide bakoxtaren eskema eta horri buruzko datuak zein bestelako informaziño erabilgarria dakar. Nahi dabenak, QR kodigua erabillitza, ibilbidiak interneten ikusteko aukeria izango dau, zuzenian Google Maps-en zabalduko jakoz eta.

Kanpaiñaren aurkezpenian aurreratu eben, hasi barri daben ekimena jendiari eza-gutzer emoteko asmuarekin, aurrerago hainbat talde urteeria antolatzeko asmua dake. Eta, horrez gain, Debabarreneko ESI

zentruarekin hartuemonetan dabilta, protokolo bat sortu eta, holan, osasun zentruetan ekimenari buruzko informaziñua zelan emon adosteko. Bestiak beste, horri esker medikuak berak izango dau ibilbidiak edo bestelako jardura batzuk konsultara doiazeneri gomendatzeko aukeria.

## Jende askoren partehartzia

Eibar Ibilixan proiektua garatzeko partehartze prozesua zabaldu eben eta, horrekin batera, lan-mahai tekniko bat, eta gizarte arloko eta landa-laneko bana sortu zittuen. Mahai teknikian alor ezberdiñetako eragilliak jardun dabe, hala nola, ingurumen teknikuak, kirolektuak, osasun publikokuak eta Hirigintza eta Obrak, Gizartekintza eta Udaltzaingo sailletako udal teknikuak, baita Debegesa garapen agentziakuak be. Gizarte lan-mahaixan, barriz, elkarte ezberdinetako ordezkariak izan dira, Biztu, Ciudades Amigables, Ikasten,

**Oraingoan Elciegon (Errioxan) Marques de Riscalen duen hotelean (Luxury Collection Hotel, 5 izar) gaua pasatzeko txartela (spa + vinoteca + gosaria barne)**



eta **El Corte Inglés** **1€**

**SALMENTA LEKUAK:**  
El Corte Inglés / Echeto prentsa  
Arriola prentsa / Correos / Isasi  
okindegia / Mujika harategia /  
Maria Ospital / Otegui / Bolintxo

**2.000 €ko GABONETAKO OTARRA**

<p>GABONETAKO OTARRA</p> <p>Prentsa: iw Zbk:</p>	<p>Gabonetako OTARRA</p> <p><b>2.000 €ko</b> balioa duen Otarra</p> <p>Prentsa: iw Zbk:</p>	<p>eta kitto!</p> <p>Fuskara Fiskarlea</p> <p>Prentsa: iw Zbk:</p>
--	---	--

**GAUR (19.00-21.00) BIHAR (13.00-14.00)  
KALEAN EROSTEKO AUKERA**



Esperientzia Eskola, Andretxea, Klub Deportibua, Afagi eta jubilaueko egoitzetarako, bestiak beste. Eta landa-laneko ma-haixak ingurua aztertzeko biharriar-jardun dau, horren ostian marraztu leikiaren ibilbidiak zehaztu ahal izateko. Orografia, toki publikuen sarea eta ekipamenduak, mugikortasun sarea eta mugak bezalakoak aztertu ditue, bestiak beste.

Ibilbidien diseinua lantzerako orduan,



Hiru ibilbidiak, bakoxta bere kolorearekin, markau ditue holan iñor ez galtzeko.



Aurreko astian presentatu eben ibilbide osasungarriaren sarea osatzen dabena.

bestiak beste, ibiltarixen ohiturak aztertu ditue eta euren ekarpenak be jasotzen ibilli ziran. Azken batian, asmua proposamena herritar guztieri zuzendutakua izatia da. Hortik zirkuituak zailtasunaren arabera sailkatzeko eskemiari jarraitzia, "holan, bakoxtaren egoera fisikaren arabera, bakoxtak berarendako egokixen topatzen dabena aukeratu ahal izateko".

Mendaroko Projecta enpresakuak arduratu dira seiñale eta bestelako kontuekin eta proiektuak 15.000 euroko aurrekontua euki dau. Aittatutako enpresa horrek aurretik be jardun dau Eibarren martxan ipiñi barri dabena proiektuaren parekuak diran beste batzuekin biharriar. Bestiak beste,

Ermuko udalarekin alkarlanian sedentari-muari aurre egitteko Hiribili proiektua eura diseinutakua da.

Ekimenarekin "musutruk egitteko moduko kirol-proposamena" eskintzia nahi dabela diñue: "Bakotxak nahixago dabena ordutegixan, bakotxaren premiñeri egokitzeko moduan eta, nahi izanez gero, modu erregularriar taldekako pasiuak antolatze-ko aukeria emoten dabena ibilbidiak dira. Zirkuitu osasungarriaren sarea osatuta eta herrixa zihertatzen dabena ibilbidiak oiñarri modura hartuta, inguratzen gaituan naturarekin lotura haundixagua eta jendiak kirola egittia, gauza bixak lortu leikiatzela pentsatzen dogu".

**Bada beste modu bat MERKEAGOA**

**eI Velocimetro.com**  
 autoeskola

**Maisu e-Learning**  
 A, B, C, E, CAP, ADR

**GIDARI ESKOLA BERRIA**

**2 KOBRANTZA BAKARRIK**

**1) – Izen-ematea: 100 € + BEZ**  
 Teoria ikastaroa, e. learning materiala eta eskukoak, azterketarako tramitazioa, kudeaketa eta aurkezpena (ez dugu matrikulazioa kobratzen)

**2) – Praktiak: 25 € + BEZ**  
 ZER GEHIAGO ORDANTZEN DA?  
 Trafikoak 90,30 € kobratzen du bi deialdiarako azterketa-tasengatik

*Non dago abantaila?*  
**Pack osoa:**  
 izen-ematea + e. learning ikastaroa + 5 praktika + BEZ = 216 €

*Zer gehiago aurreztu dezakezu?*  
 Bitan baino gehiagotan huts eginez gero, **tramitazioa 30 € izango da bakarrik**

**fM Funeraria-Ehortzetxe Mugica**

**EIBAR**  
 Beilatokia  
**Funeuskadi Eibar:**  
 Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
 Beilatokia:  
**SIGMA Industrialdea**  
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

**Bulegoa Eibarko erdialdean**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**  
**943 20 19 51** [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



Antxon Lezaunek Amañako Pedro arma-dendan egiten du lan eta, horrekin lotuta, ehiza ere praktikatzen du, "konpromiso askotan". Baina ez da ehiztari klasiko horietakoa, arkuarekin eskopetarekin baino askoz gehiago gozatzen duelako. Arrantza ere ez du baztertzen, berak dioen moduan "beti ere pieza hil barik". Arku-lehiaketetan goi postuak lortutakoa dugu eibartarra, horren adibide arko konposatuan eskuratu zuen Bizkaiko txapela. "Euskadikoa ere irabazi nuen orain dela bi urte. Baita Espainiakoa ere, azkenean puntuazio arazoak tarteko kendu bazidaten ere". Sasoian bakarrik ez, urte osoa aprobetxatzen du ehiza egiteko.



## **ANTXON LEZAUN (ARKUA, EHIZA ETA ARRANTZA):**

# **"Arkua eskopeta baino askoz naturalagoa da"**

**- Oraingoa da, orokorrean hartuta, ehizan jarduteko sasoi, ezta? Baina zure denboraldia gehiago luzatzen da.**

Ez daukat nire burua ehiztari ohizkotzat. Esaterako, arkuarekin eskopetarekin edo erriflearekin baino askoz gehiago gozatzen dut. Arkua naturalagoa da eta aukera gehiago eskaintzen dizkio animalari, zuk beste zeozer sentitzeaz aparte. Arkuak ematen dizuna bizi egin behar da jakiteko; ehiza hori da.

**- Lehiatu ere, arkuarekin txapelketetan izan zaren moduan, bestelako ehizaketan ez zara parte-hartze zale.**

Lehiatu behar hori, aldamenekoak baino pieza gehiago kobratze horretako borroka ez dut gogoko. Horregatik, noizbaiten izan banaiz ere (batez ere probatzera joan nintzen, txakurrarekin), Diana elkartekoek-eta antolatzen dituzten lehiaketetan ez dut parte hartzen. Arkuarekin bai lehiatu izan dudala, eta Urdaibaiko klub batekoa naiz.

**- Arku txapelketak noiz izaten dira? Bestela, noiz egiten duzu ehiza arkuarekin?**

Txapelketak batez ere uda partean izaten dira eta ondo pasatzera joaten naiz, beste barik. Ehizan, bestalde, asko maite dut gaez egitea: basurdeak eta halakoak harrapatzeko, haiek irtetzen dutenean irten behar duzu zuk ere. Orduan ikusten dituzte ere garduñak, martak... bestela ikusiko ez

zenituzkeen animaliak. Zuhaitz batera igo eta inguruneaz gozatzea edozeinek eskertuko luke. Eskopetekin-eta egiten diren batidetan, bestalde, mendia itxi, txakurrak bota... eta zuregana datozenean tiroa bota... Hor meritua perrero edo ehizatxakur-zainek dute. Haiek errazten dute bidea.

**- Zuk ez duzu txakurrik, ala?**

Ba txakur barik nabil. Azkena teckel bat arrastoetarako, baina laga egin dut, aitari ez kentziarren. Txakur barik ere badira gauza nahiko ehizaren inguruan bizitzekoak, ingurunea zaintzearen espiritutik abiatuta: mendia garbitu, sasiak moztu, taldean jardun, mokadu bat hartu elkarrekin... Ehiztaria goiz jaikitzen da guzti horrek merezi duelako.

**- Ehizarik badago hemen? Jendea asko kexatzen da, asko jaitsi dela esanez.**

Ehiza txikiari dagokionez, ez dago gauza askorik, ez. Oilagorra eta usoa kenduta, ezer gutxi. Ehiza larrian beste gauza bat da: basurdeak eta orkatzak plaga bihurtu dira ia, batez ere txerrien kasuan. Izan da baserritarrik ehiztarien kontra jardun eta gero basurdeek egiten zizkion kalteak dirrela-eta guregana jo duena ea akabatuko genituen eskatzeko. Andaluzian eta Extremaduran askoz gehiago zaintzen dute ehiza hemen baino.

**- Zaltetasuna zure lanarekin lotuta dago:**

**Ezin gurpil horretatik atera. Edo gustora zabilta horrela?**

Nire lana gustoko dut; ezin dut kontrarik esan. Eta lagun batekin mendira joatean, han lasai egonda, deskonektatu ere egiten dut. Bestela, gure profesioan gazterik ez dago apenas. Nik aurretik Grullan egin nuen lan, sei urtez.

**- Nondik etortzen zaizkizue lan gehienak? Estatutik, kanpotik?**

Guk, armaginak moduan, konponketak egiten ditugu, batez ere. Eta Espainiakoe-kin nahikoa dugu, ez dut nahi lan gehiago hartzerik. Eskopeta artisauak ere hemen-dik kanpo ez dira egiten: Grulla, Garbi... dihardute lan horretan.

**- Hor ere prezioan egongo da aldea.**

600 eurotik hasi eta 150.000 eurora artekoa, eskaeraren arabera.

**- Eta arrantzan, noiz jarduten duzu?**

Batez ere, martxotik abuztura arte-edo. Uribarriko urtegiara jotzen dugu eta kayak-etan egiten dugu arrantza. Lutxoak eta perkak hartzen ditugu batez ere, beti ere gero askatzeko. Itsasoan, bestalde, lupina hartzen dut gehien eta urpeko arrantza iruditzen zait politena.


**- Asteburuan, nora?**

Huescara joatea tokatzen zaigu. Urtarri-lean Alacantera joango gara. Gau gogorak dira mendi goietakoak, baina merezi du.



## Unamunzaga-Lantz bikoteak mailari eutsi zion Zumaian

Norgehiagoka garrantzitsua zuen aurreko asteburuan Unamunzaga-Lantz bikoteak, eta ondo irten zuen erronka horretatik: Zumaian 22-5 irabazitako partiduari esker, Klub Deportiboko bikoteak bigarren mailan jardungo du hurrengo denboraldian ere. Narbaiza-Gaztañaga senior mailako bigarren bikoteak, ondo jokatu arren, 22-9 galdu zuen Andoaingo frontoi irristakorrean. Infantil mailan, Caminak irabazi egin zuen, Sanchezek galdu eta Azkargortaren aurkariak bertan behera laga zuen partidua.



gortaren aurkariak bertan behera laga zuen partidua.

**Gaur 19:15ean jaialdia izango da Astelena frontoian.** Gipuzkoako Errendimendu Banakako Txapelketaren barruan, infantilen arteko norgehiagokak ikusi ahal izango dira: Caminak Bergarako Etxaniz izango du aurkari eta Azkargortak Aretxabale-tako Lasa.



*Bittor Ugarteburu nagusitu zen Iruzubietan.*

## Hautagai asko txapela irabazteko

Bihar Elgetako bolatokia jokatu den txapelketa horretako azken jardunaldiak interes berezia du, azken urteotako bolari kopuru handiena baitago txapela janzteko aukerarekin. Aurreko zapatuan Ziortza-Bolibarko Iruzubietako bolatokia jokatu den taldian bikain jardun zuten gure herriko ordezkariak eta, horrela, Bittor Ugarteburuk irabazteaz gain (bera izan zen bakarra sei txirilo etzaten), Sergio Rodriguez Asola Berriko taldekideak bigarren postuan berdindu zuen Iruzubietako Antonio Ibarluzearekin bost txirilo botata. Saikapen orokorrean Elgoibarko San Migueleko Jabier Osoro dago lider, txirilo bakarrera jarraitzen dion Ugarteburu eibartarraren aurretik, eta hurrengo postuetan nahiko bolari daude, guztiak ere txapela lortzeko aukerarekin.

## Eibar vs Durango: Eibarkoak garaile nesketan, galtzaile mutiletan

Aurreko asteburuan herriko errugbi taldearen senior mailako ordezkariak bizkaitarren aurka neurtu zituzten indarrak: gizonezkoen taldeak 22-12 galdu zuen Durangon, zeozer gehiago merezi izan bazuten ere. Emakumezkoen taldea, bestalde, erraz nagusitu zitzaizen durangarrei Unben jokatu den norgehiagokan eta baita 22-5 irabazi ere. Eibar Rugby Taldeko 14 urtetik azpikoek, bestalde, torneoa jokatu zuten Unben Bera Bera eta Gaztedi taldeekin.



Zure enpresa erakusteko  
leku aparta

# GIDA

KOMERTZIALA 2017

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus  
943 20 67 76  
www.etakitto.eus



**AURREKO ASTEBURUKO emaitzak****FOBALLA**

**1. Maila**  
Las Palmas 1 Eibar 0  
**Emakumezkoen 2. Maila**  
N<sup>a</sup> S<sup>a</sup> Belen 2 Eibar 3  
**3. Maila**  
CD Vitoria / filiala 0 Beasain 1  
**Emakumezkoen Lurralde Maila**  
Arizmendi 6 Eibar 1  
**Erregional Gorengoena Maila**  
Getariako 2 Eibar Urko 1  
**1. Erregionala**  
Urki 1 Eibartarrak 3  
**JUBENILAK**  
**Ohorezko Maila Nazionala**  
Eibar 3 Varea 0  
**Ohorezko Maila**  
Eibar 1 Billabona 2  
**1. Maila**  
Lagun Onak 2 Urki B 2  
Urki A Larraquest 1 Soraluze 4  
**KADETEAK**  
**Euskadiko Liga**  
Sestao River 0 Eibar 1  
**Ohorezko Maila**  
Eibar 0 Lazkao 2  
Aretxabaleta 1 Urki 1  
**1. Maila**  
Aloña Mendi 0 Urki 1  
Eibartarrak 1 Antzuola 8  
**Nesken Ohorezko Maila**  
Hernani 1 Eibar 2

**FOBALL-ZALETUA**

**KirolBet Liga**  
Esmorga 2 Garajes Garcia 1  
L.P. Machado Tankemans 2 Kontent 4  
Durango 3 Bar Areto 1  
Ipur Sagardotegia 1 Bar EzDok 2  
Bar Txoko 3 Slow XOK 1  
Azkena Adahi 2 Sporting 0  
Alkideba 3 Bar Arkupe 1

**ARETO-FOBALLA**

**2. B Maila**  
Debabarrena C. Egile 2 Colo Colo 5  
**KADETEAK**  
Aloña Mendi 3 Debabarrena 4

**ESKUBALOIA**

**1. Nazional Maila**  
Quiron Askartza 22 Somos Eibar 34  
**Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa**  
Aiala 17 Avia Eibar Eskubaloia 16  
**Gipuzkoako 1. Maila**  
Haritza Eibar Eskubaloia 23 Soraluze 22  
**JUBENILAK**  
**Euskadiko Txapelketa**  
Tekniker Eibar Eskubaloia 30 Usurbil 16  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
Bidasoia Irun 41 Eibar Eskubaloia 20  
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**  
Avia Eibar 21 Consulting Alaves 29  
**KADETEAK**  
**Euskadiko Txapelketa**  
Tekniker Eibar Eskubaloia 17 Usurbil 45  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
Eslaban Eiba 21 Egia Indaux 27  
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**  
Avia Eibar Eskubaloia 24 Egia Veltins 28

**ERRUGBIA**

**Ohorezko B Maila**  
Durango Nissan 22 Avia Eibar Rugby 12  
**Emakumezkoen Euskal Liga**  
EzDok Avia Eibar Rugby 22 Durango 5

**SASKIBALOIA**

**Gipuzkoako 3. Maila**  
Katu-Kale 72 Larramendi 64

**WATERPOLOA**

**Euskal Herriko 1. Maila**  
Donostia 8 Eibarko Urbat Urkotronik 12  
**Euskal Herriko 2. Maila**  
Sestao 11 Eibarko Urbat Urkotronik 10  
**Nesken Euskal Herriko 1. Maila**  
CD Bilbao 6 Urbat 3H 16  
**KADETEAK**  
Easo 2 Eibarko Urbat Urkotronik 23

**PILOTA**

**Profesionalak Astelenan**  
Gorka/Merino 20 Jaunarena/Cecilio 22  
Mendizabal III.a/Rezusta 21  
Elezkano II.a/Merino II.a 22  
Irusta 18 Erostarbe 6

**HIRU TXIRLO**

**Euskal Herriko Txapelketa**  
Iruzubietako bolatokia  
1) Bittor Ugarteburu (Asola Berri) 6  
2) Antonio Ibarluzea (Iruzubietako) 5  
3) Sergio Rodriguez (Asola Berri) 5

**Asteburuko kirol agenda****KIROL AGENDA ETA EMAITZAK**  
**www.etakitto.eus-en**

Kirolzaleendako zerbitzu berezia eskaintzen dihardugu denboraldi honetan, gure web orrian kontsultatu dezakezue-na. Horrela, barixaku goizerako asteburu horretan izango diren neurketak eta horien ordutegiak jasotzen dituen KIROL AGENDA izango duzue eskura, eta baita **astelehenero lehen orduan** asteburuan izandako emaitzen berri jasoko dituen ASTEBURUKO EMAITZAK. Informazioari dagokionez, helduen partiduetatik hasi eta gazteen mailtakoetaraino jasoko ditugu, jubenilak, kadeteak, infantilak eta alebinak tartean.

Azken asteburuko emaitzei errepasoa eginez, **foballean** Eibarrak 94. minutuan galdu zuen Las Palmasen eta 2. Mailan jokatzen duen nesken taldea Zaragozan nagusitu zen. Erregionalean Eibartarrak 1-3 nagusitu zen Urkiren kontra jokatutako derbian.

**Foball-zaletuan** sailkapena estutu egin da goiko postuetan Garajes Garcia liderrak Esmorgarekin galdu ondoren. **Areto-foballean** Concepto Egilek amore eman zuen Colo Colo talde handiaren aurrean, baina kadeteek garaile jarraitzen dute



Urki A taldeko neska lider bakarrak dira.

**Eskubaloian** 1. Nazional mailako Somos Eibar erraz nagusitu zen Bizkaia aldean eta Haritza gol bakarrarengatik irabazi zuen; kontrako zortea izan zuen nesken Avia Eibarrak, azken hauek gal-tzaile gol batengatik. **Errugbian** Euskal Ligako neskek bide onetik jarraitzen dute; mutilek, bestalde, nahiko lan dute azken postuetatik ihes egiteko. **Saskibaloian** bikain hasi du denboraldia Katu-Kalek, orain arteko partidu guztiak irabazita: Ipuruan Kopako txapela jantzi zuten Larramendiri 72-64 gailenduta. **Waterpoloan** denboraldi ezinhobea dihardute egiten talde guztiak eta kadeteek ere oso indartsu hasi dute denboraldia. **Pilotan** profesionalen jaialdia izan genuen aurreko domekan Astelenan eta, azkenik, **hiru-txirlotan** Asola Berriko Ugarteburu izan zen onena.

**Asteburuko kirol emaitzak****ASTEBURURAKO kirol agenda****FOBALLA**

**Emakumezkoen 2. Maila**  
Eibar - Berrioazar (domeka, 12:30)  
**3. Maila**  
CD Vitoria - Durango (zapataria, 17:00)  
**Emakumezkoen Lurralde Maila**  
Eibar - Mutriku (domeka, 18:00)  
**Erregional Gorengoena Maila**  
Eibar Urko - Beasain (domeka, 17:00)  
**1. Erregionala**  
Soraluze - Urki (zapataria, 10:00)  
Eibartarrak - Bergara (zapataria, 17:30)  
**JUBENILAK**  
**Ohorezko Maila Nazionala**  
San Juan - Eibar (zapataria, 16:30)  
**Ohorezko Maila**  
Ordizia - Eibar (zapataria, 18:15)  
**1. Maila**  
Aloña Mendi - Urki A (domeka, 17:30)  
**KADETEAK**  
**Euskadiko Liga**  
Eibar - Amaikak Bat (domeka, 15:00)  
**Ohorezko Maila**  
Real Sociedad - Eibar (zapataria, 12:30)  
Urki - Ilintxa (zapataria, 15:30)  
**1. Maila**  
Urki - Aretxabaleta (domeka, 11:00)  
Arrasate - Eibartarrak (zapataria, 10:00)  
**Nesken Ohorezko Maila**  
Eibar - Goierri Gorri (domeka, 16:00)

**FOBALL-ZALETUA**

**KirolBet Liga**  
Sporting - Bar EzDok (zapataria, 09:00)  
Kontent - Slow XOK (zapataria, 09:00)  
Esmorga - Tankemans (zapataria, 10:30)  
Bar Areto - Ipur (zapataria, 12:00)  
Durango - Alkideba (domeka, 09:00)  
Azkena Adahi - Arkupe (domeka, 09:00)  
Txoko - Garajes Garcia (zapataria, 10:30)

**ARETO-FOBALLA**

**2. B Maila**  
Pinseque - C. Egile (zapataria, 18:00)  
**KADETEAK**  
Debabarrena - Goierri (domeka, 11:30)

**ESKUBALOIA**

**1. Nazional Maila**  
Somos Eibar - Romo (zapataria, 19:00)  
**Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa**  
Avia Eibar - Urnieta (zapataria, 17:00)  
**Gipuzkoako 1. Maila**  
Saleko - Haritza Eibar (zapataria, 18:00)  
**JUBENILAK**  
**Euskadiko Txapelketa**  
Elgoibar - Tekniker Eibar (domeka, 13:00)  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
Arrano - Eibar Eskub. (zapataria, 12:15)  
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**  
Aloña Mendi - Avia Eibar (domeka, 10:30)  
**KADETEAK**  
**Euskadiko Txapelketa**  
Elgoibar - Tekniker Eibar (domeka, 11:30)  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
Pulpo - Eslaban Eibar (zapataria, 19:00)  
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**  
Leizaran - Avia Eibar (zapataria, 13:00)

**ERRUGBIA**

**Ohorezko B Maila**  
Eibar Rugby - A Coruña (domeka, 12:00)  
**Emakumezkoen Euskal Liga**  
EzDok Eibar - Hernani

**WATERPOLOA**

**Euskal Herriko 1. Maila**  
Urbat Urkotronik - Leioa (zapataria, 14:30)  
**Euskal Herriko 2. Maila**  
Urbat Urk. - Santoña (zapataria, 15:45)  
**Nesken Euskal Herriko 1. Maila**  
Urbat - Leioa (zapataria, 20:30)

**PILOTA**

**Afizionatuak Astelenan**  
INFANTILAK  
Camina (Eibar) vs Etxaniz (Bergara)  
Azkargorta (Eibar) vs Lasa (Aretxabaleta) (barixakua, 19:15)  
Goikoetxea (Deba) vs Sanchez (Eibar) (barixakua, 19:15, Deban)

**HIRU TXIRLO**

**Euskal Herriko Txapelketa**  
Elgetako bolatokia (zapataria, 17:00)



**“Zure lehenengo Behobia bada, irten zaitetz 15-18 kilometro bitarte eutsiko diozula ziur zauden erritmorra; aldiz, zure bosgarren edo hamargarren Behobia bada eta ibilbidea ezaguna baduzu, azken 5 kilometroetarako erreserbak gordetzea da garrantzitsuena”,** dio **Enrique Perez de Ayala** Policlinica Gipuzkoako Kirol Medikuntza Zerbitzuko buruak. Sendagileak garrantzi handia ematen dio domekan izango den eguraldiari eta **“hidratazio zaintzeari”** ere. Gihar-kontrakzioen mekanismoak beroa sortzen du eta **“orduko 12 kilometroko abiadurako proba batean (kilometroa 5 minututan), gorputzaren temperatura 40-41 gradura helduko zen temperatura-erregulazio mekanismoek funtzionatuko ez balute”**.

Perez de Ayalak edatea gomendatzen du izerdiarekin galtzen duguna berreskuratzeko: **“Ariketa fisikoarekin likido gehiago galtzen da gatz mineralak baino eta edari idealak gatz mineralak eta azukreak izan behar ditu kantitate orekatuetan. Hotzarekin glukosaren kontzentrazio egokia 40-50 gr/litroko da eta bero egiten badu 20-25eraino jaitsi daiteke”**. Ordubetean kirolariak litro laurdena izerdi sortzen duela dio sendagileak. Horrelako proba baten aurrean hainbat arrisku-faktore zaintzea komeni dela dio eta tartean sartzen ditu **“pisua soberan izatea, lipidoen igoera odolean, presio arteriala...”**.

## Deporreko Mendi Batzordea presidente berriaren bila

Eibarko Klub Deportiboko Mendi Batzordeak martitzenean egindako ohiko batzar nagusian Egoitz Elduaiein orain arteko presidentek kargua lagatzeko asmoa azaldu zuen. Zazpi urte egin ditu dagoeneko Elduaieinek postu horretan eta aro berri bati ekiteko ordua dela eritzi dio. Hala ere, prest agertu zen etapa berrian ere klubarekin elkarlanean jarduteko. Mendi Taldeak batzarrean izan zirenei eta gaiarekin interesa duten guztiei dei egiten die batzordea berrantolatzen hasteko lanean laguntzeko.

## Ipuruako igerilekua itxita zapatu arratsaldean



Urbat-Urkotronik-eko igerilariek Neguko Ligako bigarren jardunaldia jokatuko dute bihar, etxean gainera. Hori dela-eta, Ipuruako igerilekua itxita egongo da jendearendako, arratsaldeko 16:00etatik 20:00ak arte.

# AHOLKU BATZUK 52. Behobia-Donostiaren aurrean



### LASTERKETAREN AURRETIK

- 1) Osasun-azterketa egin, batez ere 35 urtetik gorakoentzat
- 2) Bainu beroa, masajeak eta luzatze-ariketak mesedegarri bi egun lehenago
- 3) Karbohidratoak (pasta eta arroza) gehitu hiru egun lehenagotik
- 4) Gosaldu 2/3 ordu lehenago (esnea zerealekin eta kafea/tea)
- 5) Gorputzari hidratatuta eutsi eta ur hotza edan, kantitate txikieta, proba hasi aurretik
- 6) Eguraldiaren arabera jantzi. Baselina eman izter barnealdetan eta titiburuetan.
- 7) Proba hasi aurretik beroketa- eta luzatze-ariketa samurrak egin

### LASTERKETAN

- 1) Edan 20 minutuero, hidratatuta egoteko, egarri izan aurretik. Puntu horretara iritsita, deshidratatuta zauden seinale.

- 2) Ekidin %20tik gorako glukosa-kontzentrazioa dituzten freskagarriak, ohituta ez bazaude behintzat.
- 3) Karranparik edo bestelako minik sentitzen baduzu hanketan abiadura jaitsi edo geratu. Luzatu gihar hori eta, ez bada hobetzen, laguntza postura jo.

### LASTERKETAREN ONDOREN

- 1) Ez laga berehala antxixiketana egiteari; jarraitu oinez edo zapasaltoka. Masajeatu eta luzatu giharrak. Edan ura erruz.
- 2) Minak tratatzeko modurik onena bertan izotza ipintzea da. Arazoak jarraitzen badu, jo sendagilearengana.
- 3) Aztertu zure oinak eta tratatu atera zaizkizun baba guztiak. Kontuz hotzitzearekin.
- 4) Gomendagarria da karbohidratoez hornitzea berriro: pasta, arroza, entsalada edo barazkiak, fruta eta arraina.

## Julen Madina omendu zuten jiu-jitsu Espainiako Kopan

Arrakastatsua izan zen asteburuan Eibarren jokaturako Espainiako Jiu Jitsu Kopako bigarren edizioa, bederatzi erkidegoko 170 bat ordezkari jaso zituen egun osoko jardunaldian. Talde guztiek eskertu zuten Kalamuako antolatzaileen lana eta denek hartu zuten parte kirol horretako sutatzaile izan zen Julen Madinari egindako omenaldian. Emaitzei dagokienez, Nekane Muguruzak eta Josu Olmosek urrezkoa irabazi zuten (lehenengoak borroka modalitatean eta bigarrenak Ne Wazan) eta izan ziren domina gehiago ere Kalamuakoentzat. Borrokan, zilarra jaso zuen Iker Martinezek eta brontzezkoak Ane Rojok eta Julen Ramonek; eta Ne Wazan, zilarrezkoa Rojok eta Ramonek, eta brontzezkoak Jorge Arratek eta Javier Asorreyk, Iker Martinezekin batera. Meritu itzela du azken honek, kadetea izanda seniorrekin lehiatu baitzuen.





**DAVID TESTAL**  
(idazlea)

**- Nolako da gaur aurkeztuko duzun liburua?**

Hizkuntzaren inguruan egin dudan azterlan luzearen emaitza da. Hizkuntzaren erabilerari buruzko lana da, gure pentsamendua eta, beraz, gure errealitatea erakitzeke hizkuntza nola erabiltzen dugun jasotzen ahalegindu naiz. Hitza, bestalde, magiaren instrumentu nagusia da. Liburu hau Goi Mailako Magiari buruz idazten ibili naizen manualaren lehen bolumena litzateke. Urte mordo eman ditut hori idazten eta oraindik ere idazten jarraituko dut, bizitza osoa horretan emango dut. Bizi garen mundua sortzeko hizkuntza etenbarik nola erabiltzen dugun azaltzen joango naiz eta, horrekin batera, hizkuntza modu kontzienteagoan erabiliz gero bestelako munduak sortzeko aukeraz ere jardungo dut. Hainbat libururekin osatutako bildumak

## “Oparitzeko erosten dute liburua askok”

Gaur arratsaldean, 19:30ean, aurkeztuko du David Testal madrildarrak "Si fueses pájaro lo entenderías" liburua, Arrate Kultur Elkartearen. Lan horren 1.500 aletik gora saldu eta gero, hirugarren edizioa kaleratu du. Bere burua autodidaktatzat dauka eta, idazlea izateaz haratago, zinemagilea, hizkuntzan eta ametsetan aditua eta Tarot-irakurlea ere bada. Eibarrera egingo duen bisitaren aitzakiarekin, asteburuan (bihar eta etzi) nahi duenari Tarota irakurriko dio, aurretik hitzordua eskatuta 647 223 134 telefonoan (Koro).

egiten joango naiz, manuala osatu arte. Liburu hau nik "pozimak" deitu dudan bildumaren barruan legoke eta bakoitzak nahi duen moduan irakurtzeko moduko testu labur eta independenteekin osatu dut.

**- Zuk zeuk eman duzu argitara, ezta?**

Autoeditatzeko erabakia idazleak diren hainbat lagunekin berbetan egon eta gero hartu nuen. Izan ere, liburuaren salmentatik oso portzentajea txikia jasotzeaz gain, liburuaren promozioaz eurak arduratu behar zutela esan zidaten. Horregatik liburua nik editatzeko pentsatu nuen eta, horri esker, bidaia zoragarria hasi dut. Egunetik egunera gero eta toki gehiagotik gonbidapenak ailegatzen zaizkit, liburua aurkeztu eta nire lanaz berba egitera joateko. Eta niretzat garrantzi handia duen fenomeno sortzen ari da: askok eta askok oparitzeko erosten dute, jende

askok liburua irakurri eta maite ditueni oparitzeko gogo bizia izaten du. Betirako iraungo zuen liburua idatzi nahi nuen, niri aurkitzea gustatuko litzaidakeen lana, eta horretan ahalegindu naiz.

**- Eta nolatan hasi zinen Tarota irakurtzen?**

Niretzat Tarotaren irakurketa arte iragankorra da, "performance" moduko bat. Gure burua denari zentzuren bat bilatzen ibiltzen da beti, etenbarik. Kontzientzia hartzeko ahalik eta baliagarrien izango den istorioa eraikitzen laguntzean datza nire lana, hau da, amildegiraino laguntzen diot jendeari, aitzakiarik gabe lagatzeko. Besteekin berba egiteko primerako aitzakia ere bada eta, bide batez nire buruari laguntzen diot. Izan ere, laguntza eske datorren jendeak zuri laguntza eskaintzen dihardu.

## EIBARLAB'S tailerra eta mikroantzerkia

Biharko "Eraiki dezagun LED pantalla bat!" tailerra antolatu dute Hirikiten elkarteak, 11:00etatik 16:00etara Biharriaren (Ubitxa, 16-18). Jose Antonio Llorente Sismak (BAU, Bartzelonako diseinu unibertsitate zentrokoa) gidatuko duen saioan led tira moldagarriekin eraikitako LED pantaila handia diseinatzeko aukera izango da eta, horrekin batera, LED-ak kontrolatzeko Arduino nola erabili ere ikasiko

dute parte hartzera animatzen direnek. 15 urtetik gorako gazteei eta helduei zuzendutako ekitaldia da eta izena emateko eibarlabs@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Bestalde, domeka honetan ere mikroantzerkiarekin gozatzeko aukera izango da, 18:00etatik aurrera. Katapulta Tour Gipuzkoa Zirkuitoaren baitan "Confusion craneal" (Marga Altolaguirre) eta "Requiem para Enriquez" (El Concertino) lanak eskainiko dituzte. Sarrera doan izango da.



**MARGA ALTOLAGUIRRE**  
(CONFUSION CRANEAL)  
& **EL CONCERTINO**  
(REQUIEM PARA ENRIQUEZ)  
MIKROANTZERKIA //  
///MICROTEATRO

**EIBAR BIHARRIAN**  
NOV. 13 18:00  
DOMINGO / ENTRADA LIBRE  
CARRANZA GIBERTU GAZTEAK  
Bi | Pr | An | URTE



## HITZALDI-DASTAKETA eta pintxoak

Urteroko martxari jarraituta, Arrate Kultur Elkarteak gastronomiari eskainitako hainbat jarduera antolatu ditu azarorako: hilaren 21ean hitzaldi-dastaketa hartuko du Topalekuak, 19:00etan hasita: "Elikagai Beganoak. Proteinak nundik?" goiburuari jarraituta, saioa Olaia Blanco eta Oskar Trebiñoren eskutik egingo da. Izena emateko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi, 943202299 telefonora deitu (utzi mezua erantzungailuan) edo bulego ordutegian pasatu. Eta azaroaren 22, 23 eta 24an, berriz, XIII. Pintxo Lehiaketa egingo da izena ematen duten tabernarien artean.





## Serranoren "Linbotarrak" Harixa Emoten-en

Harixa Emoten, euskarazko irakurle taldeak datorren astean, martitzenean egingo du hurrengo saioa, 19:00etan Portalean. Azaroko solasaldian aztertzeko aukeratu duten liburua "Linbotarrak" da eta Asier Serrano lanaren egilea gonbidatu dute, berak idatzitakoari buruz berba egiteko. Pamiela argitaletxeak argitara eman duen "Linbotarrak" poemarioak Xabier Lete III. poesia saria eman zion eibartarrari aurtengo apirilean eta, Joxerra Gartzia epaimahaiko kideak esandako moduan, "linboaren metaforak besterik iradoki balezake ere, ez da hemen aingeru konturik batere. Aitzitik, arras kontu mundutarrak dira poemotan jorratzen direnak, eguneroko jokabideetatik hasi eta kritika sozial eta politikorainoko esparru guztian".



## Lore-dastaketa saioa

...eta kitto! Euskara Elkarteak lore-dastaketa saioa antolatu du azaroaren 15erako, martitzena, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, ...eta kitto!-n bertan. Mentxu Amunategi bermeotarrak gidatuko duen saioan gure inguruko landareak eta loreak ezagutzeaz gainera, sukaldaritzan eta osasun alorrean ematen dizkiguten aukerei buruz ere hitz egingo du. 5-7 landare inguru aukeratuko dira: txiza-loreak, erromeroak, asunak, larrosak... Dastaketa egitez gain, landareen inguruko hamaika bitxikeri ere azalduko ditu Mentxuk. Izena emateko telefonoz deitu (943200918) edo emaila bidal daiteke (elkartea@etakitto.eus). 3 euro balio du (berbalagunek lehenetsuna izango dute).



## "Tipi-tapa, Korrika" lanaren estreinaldia

Asteburu honetan Eibarren izango dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots, "Tipi-tapa, Korrika!" ikuskizun berria aurkezten. Lau saio eskainiko dituzte Hezkuntza Esparruan (Unibertsitate Laboralean): zapatuan 16:30ean eta 19:00etan; eta domekan 16:00etan eta 18:30ean. Nahi duenak oraindik ere sarrerak erosteko aukera badauka, txarteldegian bertan (8 euro). Pailazo ezagunek Eibarren erakutsiko dute estreineko Korrikaren inguruan sortu duten lana, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.



## Gaztaiñerre AEK-rekin

Astelehenean ospatuko dugu Gaztaiñerre eguna eta, urtero bezala, AEK euskaltegikoek horren harira ondra-jana eta kalejira prestatu dituzte. Paloma tabernan izango da hitzordua, 19:00etan. Jatekoa doan izango da, baina edaria bakoitzak berea ordaindu beharko duela argitu dute. Ondra-jana amaitu eta jarraian, Urki auzoan kalejiran ibiliko dira, Musika Eskolako trikitilariak eta Eibarko Kantuzaleak abesbatzak lagunduta. Euskaltegitik Gaztaiñerre eguna eurekin batera ospatzera animatu nahi dituzte herritar guztiak.

## Bakailao txapelketa

Azaroaren 27an, domeka Untzagan egingo den XXIV. Bakailao Txapelketan ("San Andres Saria") parte hartu nahi dutenentzat izen-ematea zabaldu dute. Eibarko elkarte, etxe edo taldeek har dezakete parte, bikoteka, eta izena emateko kuota 30 eurokoa da. Izena emateko Pegorara jo beharko da. Azken eguna azaroaren 17a izango da, 14:30ean.

## Edoskitzeari buruzko argazki-lehiaketa

Amagandik edoskitzeari buruzko I. argazki-lehiaketa antolatu du Debabarrena ESIK (Debabarrena Erakunde Sanitario Integratua). Parte hartu nahi duenak azaroaren 18ra arte izango du aukera, argazkiak (koloretan zein zuri-beltzean) BPSO.OSIDEBABARRENA @osakidetza.eus helbidera bidalita.



## Irigoiñeren Indiako argazkiak

Abenduaren 31ra arte egongo da ikusgai Jose Luis Irigoienek "India" argazki erakusketa, El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan). Nahi duenak denda zabalik dagoen egunetan joan daiteke ikustera, goizeko 11:00etatik 21:00etara bitartean.



JON MIKEL MUJIKA

## Gure San Martina

"Egiazko negua, San Martinetan hasten" dio esaera zaharrak, eta ez dabil oso oker. Baserriko bizimodutik datorren ohitura da San Martin egunarena. Egun honen inguruan, urte osoan zehar etxean gizen dutako zerria hiltzen da. Esazokoekin eta senideekin elkartu eta, ia jai giroan, negu osorako despentsak beteko dituzten odolki, urdai, txorizo, eta abarrak prestatzen dira. Baina baserrietako atarrietatik urrun, kaoba egurrezko mahai eta larruzko aukidun bulegoetan ere ospatzen dira San Martinak. Kanada eta Europar Batasunak CETA izeneko merkataritza akordioa sinatu berri dute Bruselan kale-istilu artean. Akordio hau bi herrialdeetako botere ekonomikoek ia klandestinitatean idatzi eta adostu dute ia 7 urteren ondoren. Hau gutxi balitz, Europar Batasuna Ameriketako Estatu Batuekin negoziatzen ari den TTIP merkataritza akordio are kezagarriagoa ere indarra irabazten ari da. Bi akordio hauen sinadurarekin herritarren azken hamarkadetako lan eta borrokaren fruitu diren eskubide sozial gehienei erraiak aterako dizkiete. Eskuak zikindu gabe, amantal eta aitzoen ordeztu gorbata eta zilarrezko lumak baliatuz, zatikatuko dituzte gure zerriak. Eta zerri hauek ez dira urte batez bakarrik gizendu, urte asko behar izan dituzte daukaten pisua hartzeko. Pentsa zenbat odolki espero dituzten ordainetan.

## Javier Agirresarobe sariak, bihar Coliseoan

Astelehenaz gozotik Asier Errasti Film Laburren lehiaketara aurkeztutako lanak proiektatu dituzte egunero Coliseoan eta gaur ere hala egingo dute, 20:00etatik aurrera: "Galletas" (Ignacio Sepulveda), "Norte" (Javier Garcia, Gemma Rodriguez), "Turno de noche" (Vicente Ruiz de Leon), "Isabel" (Nerea Arrizabalaga), "Mirame a los ojos" (Olga Alaman), "Pos-tales" (Ines Pintor, Pablo Santidiran), "Mañana" (Manuel Aguilar) eta "Down by love" (Jose Corral) laburmetraiak emango dituzte gaur eta, betiko moduan, sarrera doan izango da.

Bestalde, atzo estreinatu zuten Cruz Noguearak zuzendu eta idatzi duen "Consejos para eliminar la caspa" (*goiko irudian*). Noguearak jaialdi honetan Eibarko lan onenaren saria jaso zuen 2014an, "Colillas" izenburuko lanarekin eta oraingoan ere atal horretan lehiatuko da, Mikel Rodriguezen "Fase R.E.M." beste lan finalista-rekin batera. Atzo estreinatu zen lana ileapain-degi batean girotuta dago eta indarkeria matxistaren gaiari heldu dio egileak. Laburmetraian



parte hartzen duten antzezleak eibartarrak dira: Ane Ruiz, Maite Garcia, Maider Albizu, Eguzki Arginzoniz, Maria Rios eta Juanma Cano. Asua Errekako "Marimar" ileapaindegian grabatutako lanean Unai Zorriketa izan da irudi arduraduna eta soinu arduraduna, berriz, Aratz Zarandona eta The Vartools talde eibartarrak bereziki lan horrentzat idatzitako abestia ere badu. Lehiaketako irabazleak zeintzuk diren bihar esango dute, 19:30ean hasiko den sari-banaketan. Aurtun lehen aldiz Coliseoan izango da ekitaldia (eta ez Portalean).

## Gaurtik 14ra mailegurik ez liburutegian

Domekan Donostiako liburutegiak gestiorako sistema informatiko berrira aldatuko dira, Eusko Jaurlaritzako Irakurketa Publikoko Sarean sartuko direlako eta, aldaketa horren ondorioz, azaroaren 11tik 14ra bitartean (biak barne) Absysnet eta eLiburutegia ezin izango dira



erabili. Beraz, aditzera eman dutenez, egun horietan ezin izango da mailegurik, berriztatzerik edo katalogozorik egin Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen barruan dauden liburutegietan. Edozein modutan ere, Juan San Martin liburutegia zabalik egongo da egun horietan, baina ez du mailegu zerbitzurik eskainiko eta ezin izango da katalogoa kontsultatu.

### Maria Moliner Saria

Bestalde, Eibarko Udal Liburutegiak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak irakurzaletasuna sustatzeko asmoz urtero antolatzen duen Maria Moliner sariaren aipamen berezia jaso du, "Leer es de primera" proiektuarengatik. Saria liburutegiko bilduma osatzera pasatuko den liburu-sorta da. Aurtengoa Maria Moliner lehiaketan liburutegiak lortu duen hamabigarren saria da.

## Bertso Jaialdia azaroaren 27an

San Andres Bertso Jaialdia azaroaren 27an izango da aurtun, igandea, arratsaldeko 19:00etan Portaleko areto nagusian. Aurretik, 18:30ean, San Andres bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira. Aurtun laukote bikainak jardungo du bertsoan, Jon Mikel Mujikaren esanetan: Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Unai Mendizabal eta Amaia Agirre etorriko dira jaialdira. Sarrerak azaroaren 14tik aurrera jarriko dira salgai ohiko lekuetan, 6 eurotan: Sagar Bitza, Kultu eta Deporren. Jaialdiaren egunetan bertan ere sarrerak erosteko aukera izango da.







**Gaztaiñerre Azoka SORALUZEN**


Bihar, zapatua, goizeko 09:00etan zabalduko da Azoka, 10:00etan Aitita-amamak plazara ekitaldia egingo da, 11:00etan txistularien kalejira, 12:00etan gazteen herri-kirolak eta, goizeko egitaraua amaitzeko, 12:00etan bertsolariak eta dantza-saioa izango dira, omenaldiekin batera. 15:00etan herri-babajana izango da eta, arratsaldeko saioan, 17:00etan koplak abestuko dira Egoitzan, 19:00etan erromeria hasiko da Iratzar taldearekin eta, amaitzeko, Fan & Go-k beste erromeria bat eskainiko du Gaztetxean.



**San Martin Azoka ERMUAN**

Bihar, zapatua, goizeko 11:00etarako postu guztiak egongo dira zabalik; 35 nekazari eta 16 artisau izango dira bertan. Alboka Musika Eskolako trikitilari eta txistularien eta Arrasateko gaiteroen kalejirak hartuko dute goiza. Ermuko kaleetatik, goizean goiz, ehun ardi eta bost asto jaitsiko dira Errekalde auzotik Martxoak 8 plazaraino; hor etxeko txikien artean arakasta duen animalien eta hegaztien erakusketa izango da. Txerriaren pisua asmatzeari buruzko apustu ospetsua jokatuko da euro baten truke. Saria lortzen den diruaren %70 izango da. Ekintza horretaz gain, herri kirolak izango dira Komentukuan eta Euskal dantzak plazan, Txindurri Txistu eta Dantza taldearen eskutik.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



**hildakoak**

- Petra Revuelta Noguera. 89 urte. 2016-X-16.
- Unai Alberdi Castro. 12 urte. 2016-XI-2.
- Jesus M<sup>a</sup> Ansola Zigorruga. 80 urte. 2016-XI-4.
- Carmelo Ojanguren Arco. 75 urte. 2016-XI-5.
- M<sup>a</sup> Nieves Atxa Garmendia. 90 urte. 2016-XI-6.
- Fco. Javier Etxeberria Urrea. 89 urte. 2016-XI-6.
- Modesto Salgado Cid. 83 urte. 2016-XI-7.
- Maritxu Agirre Velar. 91 urte. 2016-XI-7.
- Hilario Garcia Gomez. 67 urte. 2016-XI-8.
- Josetxo Arana Areitio. 59 urte. 2016-XI-8.
- Jose M<sup>a</sup> Gomez Vallejo. 80 urte. 2016-XI-8.
- M<sup>a</sup> Luisa Etxeberria Larrea. 95 urte. 2016-XI-9.

**jaiotakoak**

- Usan Gurung. 2016-XI-2.
- Amine Lerlane. 2016-XI-5.

**farmaziak**

- Barixakua 11  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Zapatua 12  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 13  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 14  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Martitzena 15  
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 16  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 17  
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Barixakua 18  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI - 2016AN-  
**Iraundegi** (Calbeton, 19)

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus .....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Txiaki .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMAITZA

2	3	7	1	6	5	4	9	8
5	4	6	2	9	8	3	7	1
9	8	1	3	4	7	6	2	5
4	9	8	6	1	2	7	5	3
7	2	3	8	5	9	1	6	4
1	6	5	4	7	3	9	8	2
3	5	4	9	8	6	2	1	7
6	7	2	5	3	1	8	4	9
8	1	9	7	2	4	5	3	6

**SUDOKUA**

	7	8		2	5		
5			7				
	4				1		
	2			6		9	
		4	9		5	6	
	8			2			3
		3				1	
				6			4
		9	3			2	8

## Barixakua 11

### GAZTELEKUA

**16:30.** Baliabideen ginkana (ping pong, futbolen eta paletetan, txandaka). Indianokuan.

### HITZALDIA

**18:00.** Modari buruz: Silvia Gallego (personal shopper), Laura Chamorro (kazetari eta aurkezlea) eta Urban Decay.

**19:30.** Sephora jaia hasiko da dendako beheko solairuan: makillajea, cava, bonboiak, deskontuak... El Corte Inglés-ean.

### BILERA

**19:00.** Sanandresak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Kultun.

### LIBURU AURKEZPENEA

**19:30.** "Si fueses pajarito lo entenderías", David Testalena. Kultun.

### SHOWA

**19:30.** "Macho-Maris" (Markus & Juanmanolo). Sarrera doan. Portalean.

### FILM LABURRAK

**20:00.** XVII. Asier Errasti Film Laburren Jaialdia. Sarrera doan. Coliseoan.

## Zapatua 12

### AZOKA

**10:30/20:00.** Eibarko akademien II. azoka. Untzagan (karpan).

### TAILERRA

**11:00/16:00.** "Eraiki dezagun LED pantaila bat!", J.A. Llorente Sesmaren eskutik. Biharran-ean (Ubitxa, 16-18).

### BERTSO BAZKARIA

**14:30.** Bertsolariak: Maialen Akizu (Urretxu), Aimar Goenaga (Eibar) eta Aratz Igartzabal (Gabiria). Gai jartzaileak: Eibarko gaztetxoek bertso eskolako kideak. Akara tabernan.

### MAHAI-JOKOAK

**16:00.** Domino txapelketa. Kantabriako Etxearen tabernan (Jardiñetan).

### PAILAZOAK

**16:30 eta 19:00.** Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en "Tipi-tapa Korrika!". Hezkuntza Esparruan.

### GAZTELEKUA

**17:00.** Baliabideen ginkana (ping pong, futbolen eta paletetan, txandaka). Indianokuan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Udazken-neguko asteburueta umek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

### FILM LABURRAK

**19:30.** "Asier Errasti Film Laburren lehiaketa. Javier Agirresarobe Saria". Irabazleei sariak banatzeko ekitaldia. Coliseoan.

### KALEETAN KANTUZ

**19:30.** Abesbatzaren kantu kalejira. Untzagatik abiatuta.

## Domeka 13

### AZOKA

**10:30/14:30.** Eibarko akademien II. azoka. Untzagan (karpan).

### MUSIKALDIA

**12:30.** Usartza Txistulari Taldearen ganbera-kontzertua, Elena Perezek zuzenduta. 3 euro. Coliseoan.

### PAILAZOAK

**16:00 eta 18:30.** Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en "Tipi-tapa Korrika!". Hezkuntza Esparruan.

### GAZTELEKUA

**17:00.** Play/Wii. Indianokuan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Udazken-neguko asteburueta umek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

### MIKROANTZERKIA

**18:00.** "Confusion craneal" (Marga Altolaquirre), "Requiem para Enriquez" (El Conccertino). Katapultatuta Tour Gipuzkoa Zirkuitoa. Sarrera doan. Biharran-ean (Ubitxa, 16-18).

## Astelehena 14

### IKASTEN

**10:00.** Teknoforum. Untzaga jubilatutako etxean (liburutegian).

### HITZALDIA

**18:00.** "Nerabeak, etxeko ezezagunak?". Kenko gunean (Estaziño, 8).

### GAZTAÏNERRE

**19:00.** Gaztaïnerre ospatzeko ondra-jana. Paloma tabernan elkartuko dira. Horren ostean, Musika Eskolako trikitilariak eta abesbatzak girotuta, kalejira egingo dute Urki auzoan.

## Martitzena 15

### IKASTEN

**10:00.** "Gaixotasun kardio-baskularrak" hitzaldia. Hizlaria: Pedro Ayerbe, Basurtoko Ospitaleko Kardiologo jubilatua eta EHUko irakaslea (euskeraz). Irekia eta doakoa. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**16:00.** Puntu-tailerra. **17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### LORE-DASTAKETA

**19:00.** Lore-dastaketa saioa. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11).

### HARIXA EMOTEN

**19:00.** Euskarazko irakurle taldea: "Linbotarrak" (Asier Serrano). Portalean.

### BILERA

**19:00.** Udalaren auzorik auzoko bilera, behealdean bizi direnentzat. Beheko Tokia jubilatutako etxean.

### BIRSORTU

**19:00.** Zohardia ponentziaren aurkezpena. Arrate Kultur Elkartearen.

## Eguaztena 16

### IKASTEN

**09:00.** Irteera: Landa-Gasteiz. Bazkaria eraman behar da. Autobusa Ego Gaineko autobus geltokitik irtingo da.

### BILERA

**19:00.** Udalaren auzorik auzoko bilera, Legarre eta inguruko bizilagunekin bilera (Arratebide, Mekola, Abontzabide eta Milaflores). San Andres Zaharren Egoitzan.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

### HITZALDIA

**19:30.** "A la primera persona que tienes que gustar es a ti misma", estetikari buruz. (Poliklinika Gipuzkoaren Osasun Ikasgelak). Hizlariak: Israel Villena eta Oscar Orozco zirujauak. Sarrera librea. Portalean.

## Eguena 17

### IKASTEN

**10:00.** "Erromatar inperioaren gainbehera" hitzaldia, Urko Barrosen eskutik (Historian Lizentziatua). Armeria Eskolan.

### DANTZALDIA

**18:00.** Ikasten-ekoa. Untzaga jubilatutako etxean.

### BILERA

**19:00.** Udalaren auzorik auzoko bilera, Amañako bizilagunekin. Auzoko elizan.

### KALEETAN KANTUZ

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

## Erakusketak

### Azaroaren 13ra arte:

– DIEGO AGUDO PINILLAREN "Pelota sobre papel". (Portalea)

### Azaroaren 20ra arte:

– I. OJANGUREN 29. ARGAZKI LEHIAKETAKO lanak. (Portalea)

### Azaroaren 30era arte:

– IÑAKI MARKAIDEREN argazkiak. (Klub Deportiboa)

– RICARDO CERRATOREN argazkiak. (El Ambigu)

– JOSE VILAREN argazkiak. (Portalea jatetxea)



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, MIREN!, martitzenian lau urte bete zenduazelako. Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, NORA Arakistain Ormaetxea. Musuz josiko zaittugu zure seigarren urtebetetzian. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IZARO, gaur zortzi urte egittzen dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, EKHI, bixar sei urte egingo dozuz-eta! Oso ondo pasa eguna. Patxo asko famelixaren eta, batez be, Maddiren partez.



Zorionak, PAULE gure txikixari, domekan lau urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAIALEN, martitzenian gure sorgintxuak lau urte beteko ditte-eta. Patxo potolo bat etxeko guztion partez.



Zorionak, IZAR, atzo 12 urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, GANIX, haraiñegun 10 urte egin zenduaz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, ANA MARI, domekan urtiak egingo dozuz-eta. Egun on bat pasa! Zure famelixaren partez.

**(ANTZOKIAN)**  
**12an: 17:00**(1 Areto),  
**19:45**(1 Areto), **22:30**  
**13an: 17:00**(1 Areto), **20:00**  
**14an: 20:30**

**"Jack Reacher"**

Zuzendaria: Edward Zwick



## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**  
**13an: 20:00**  
**14an: 20:00**

**"Historia de una pasión"**

Zuzendaria: Terence Davis



**(2 ARETOAN)**  
**12an: 17:00, 19:45, 22:30**  
**13an: 17:00, 20:00**  
**14an: 20:00**

**"No culpes al karma..."**

Zuzendaria: Maria Ripoll



**(ANTZOKIAN)**  
**12an: 17:00**  
**13an: 17:00**

**"Trolls"**

Zuzendaria: Mike Mitchell



**(1 ARETOAN)**  
**12an: 22:30**

**"100 metros"**

Zuzendaria: Marcel Barrena



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai, aldamenen duen lokala etxebizitzari emateko baimenarekin. 2 logela, sukaldea eta komuna. Berrizteko. 90 m<sup>2</sup>. Tel. 605-716777.
- 42 m<sup>2</sup>ko mobil-homea salgai Bañaresen (Errioxa). Teilatu bikoitza. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna duxarekin. 30 m<sup>2</sup>ko terraza toloarekin. Aire egokitua. 25.000 euro, negoziagarriak. Tel. 688-801329.

### 1.2. Errentan

- Logela alokagai Eibarren, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 695-716229. Amaia.
- Buhardilla edo apartamentu txikia hartuko nuke alokairuan. 1 edo 2 logelakoa. Tel. 602-377921.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 660-047305.
- Pisua alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Iggogailuarekin. Tel. 650-156832 eta 646-079423.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 652-532589.
- Bi gelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 603-683176.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Lokala salgai Urkizuko dorreetan. 85 m<sup>2</sup>. Tel. 605-206151.
- Garaje marraduna salgai Urkizuko dorreetan. Armairua ipintzeko tokiarekin. Tel. 605-206151.
- Taberna traspasatzen da Ipuruan, foball zelaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

### 3.2. Errentan

- Garajea alokagai Bittor Sarasketan. 15 m<sup>2</sup>. Iggogailua eta komunak. Bariantera irteera zuzena. 100 euro hilean, negoziagarria. Tel. 605-742841.
- Garajea alokagai Matsarian. 16 m<sup>2</sup>. Sarrera kalearen mailan. Komunak eta autoa garbitzeko gunearekin. Bariantetik zuzeneko sarrera eta irteera. 100 euro hilean, negoziagarria. Tel. 605-742841.
- Garaje itxia alokagai Txomon. Trastelekuarekin. Tel. 657-715162.
- Eibar erdian ezinhobeto kokatutako kirol-zentroan (Ugan Klub - F. Calbeton, 11) fisioterapia lanetan jarduteko gela alokagai. Tel. 943-820452. Edo utzi mezua: uganklub@gmail.com
- 18 urteko gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatutakoa. Tel. 600-890245.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 658-288240.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 943-531548 eta 632-309899.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile jarduteko eta pegoarak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 636-882838.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da 13:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegoarak garbitzeko. Tel. 620-757528.
- Neska eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko, eurekin ingelesez jarduteko aukerarekin. Tel. 629-533695. Isabel.
- Mutila eskaintzen da elektrizista lanak egiteko. Tel. 632-695273.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, asteburuetan barne. Baita ospitalean ere. Tel. 632-032798.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak, gaixoak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-230281.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 628-318570.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-683176.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 602-393678.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 637-102725 eta 943-744033.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Interna. Tel. 619-384738.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 662-252150.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 615-394820.
- Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan gaixoak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizean goiz soziedadek edo tabernak garbitzeko eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 666-844365.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 612-492519.

## 4.2. Langile bila

- Eibarreko enpresak bi tornero hartuko lituzke. Pieza bakarrak edo serie motzekoak fabrikatzeko, eta baita buru mugikorreko dekoletaje tornoak. Mekanizatuaren programa prestatu eta gauzatu beharko du. Esperientziaren arabera soldata. Behinbetiko kontratua. Bidali kurrikuluma: jazaga2000@gmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarren jornada osorako. Bidali kurrikuluma: eibarkafe@gmail.com
- Sukaldaria behar da Eibarko jatetxe batean. Astean bi egun eta erdi jai. Tel. 604-203896.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- DBH eta Batxilergoko Zientzien arloko irakaslea behar da Bergarako akademia batean lan egiteko. Bidali kurrikuluma: 3d3akademia@gmail.com
- Gitarra akustikoko klaseak hartuko nituzke asteen birritan. Solfeorik gabe. Tel. 699-693821.

### 5.2. Eskaintzak

- LHtik DBH 2. mailara arteko ikasleei zuzendutako klase partikularrik ematen ditut. Tel. 616-690620.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.
- LHko ikasleei zuzendutako klase partikularrik ematen ditut. Tel. 605-746908.
- Irakasle-masterra, EGA eta Ingeles ikasketak dituen neskak LH eta DBH klase partikularrik ematen ditu. Baita ikaslearen etxean ere. Tel. 657-721050.
- DBH, Batxilergoa eta Heziketa 2. zikloko Matematika, Fisika, Kimika, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen dira. Tel. 685-739709.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Etxeko tresna eta hainbat material saltzten ditut. Tel. 660-833346.
- Ohe artikulatua salgai (gora, behera eta alboetara mugitzeko aukera du). Egurrezkoa eta alboko hesiekin. Tel. 655-737560 eta 22joska@gmail.com
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624321.



Aldatzea jarrera bat da.  
Irabaztea gozamina.



17.990€

#changeisgood

ABC 2016  
MEJOR COCHE

Hyundai Tucson Berria.  
2016 urteko auto  
onena Espainian.

Aldaketaren alde egin genuen eta irabazi egin dugu. Sari handi bat lortu dugu: 2016 Urteko Auto Onena izatea Espainian. Auto handi batendako saria, baina batez ere jarrera batendako. Hyundai Tucson Berrian apostu desberdina ikusi dutenei esker.

Esperimentatu aldaketaren indarra [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) helbidean

 NEW THINKING.  
NEW POSSIBILITIES.

**OARSO CAR**

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZOARAKO

**ELGOIBAR**

Olaso Polig., 17

943 74 14 80



Hyundai Tucson Gama:  
CO<sub>2</sub> Emisioak (gr/km):  
119-175. Kontsumo mistoa  
(l/100 km): 4,6-7,5

# KENKO

<ZURE OSASUN GUNEA • TU ESPACIO DE SALUD>

## FAMILIENTZAT AKONPAINAMENDUA

- Haur Masaje Ikastaroa
- Haur Eramaille Aholkularitza
- Musika, Sormena eta Jolasa Familian
- Adimen Emozionala
- Familia Bitartekaritza eta Orientazio Psikologikoa
- Guraso Eskola
- Hitzaldiak eta Ikastaroak

Gure betiko osasun zerbitzuekin ere jarraitzen dugu:

**FISIOTERAPIA • OSTEOPATIA  
NUTRIZIOA • PSIKOLOGIA**

943 50 88 19 / 622 14 58 58

info@kenkogunea.com  
www.kenkogunea.com

**Estaziño, 8**





## Kids&Us: ikasi ingelesa ama hizkuntza ikasten den bezalaxe.

Hona hemen Kids&Us metodoaren abiapuntua, ingelesa lehenengo urtetik ikasteko metodologia berritzailea, 10 urtetik gorako eskarmentua duena. Kids&Usek betiko sistemarekin eteten duen ikaskuntza era berritzaile bat eskaintzen du, euren seme-alabak ingelesduntzeko gurasoek agertzen duten kezka gero eta handiagoari erantzuteko.

### Ingelesa urtebetetik aurrera

Kids&Us metodoarekin, urtebetetik gorako umeak bete-betean murgilduko dira hizkuntza berrian, mugarik gabe, baina beren adinari egokitutako egoera zein testuinguruetan, umeek txiki-txikitatik duten ikasteko gaitasun osoa aprobetxatzeko. Ipuinen, jolasen, abestien eta dantzen bidez hizkuntzan murgiltzen dira erabat, eta geuk sortutako material pedagogikoekin osatuko da.

Kids&Usek berak ingelesa ikasteko sortutako metodoa eskaintzen die urtebetetik aurrerako haurrei (gurasoek lagundurik etortzen dira eskoletara) 18 urte bete arte; izan ere, 18 urtera heltzen direnean hizkuntz gaitasun handiak lortzen dituzte, C2 mailaren baliokideak, hots, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailarik altuenaren baliokideak.

### Geuk sortutako material didaktikoa

20 kidek baino gehiagok osatutako Kids&Useko pedagogia sailak minutuz minutu antolatzen ditu eskolak, eta sail horrek prestatzen ditu Kids&Usek eskaintzen dituen ikastaro eta jardueretako material didaktiko guztia.

### Kids&Usen eskarmentua

Ikasturte honetan 90.000tik gora ikasle izango ditu Kids&Usek, urtetik urtera hazten ari den sareari esker, eta 321 ikastegi ditu irailetik.

**Kids&Us Eibar** Ego-Gain kalea, 8 20600 Eibar  
T. 688 607 638 [direccion.eibar@kidsandus.es](mailto:direccion.eibar@kidsandus.es)

### Christmas Fun Weeks: hiri-kanpaldiak ingelesez.

Gabonetako oporrak une ezinhobea dira neska-mutilek Kids&Us-en ingelesa ikasten eta jolas egiten jarrai dezaten. Fun Weeks-ak 2tik 10 urtera arteko neska-mutilentzat prestatutako ingelesezko hiri-kanpaldiak dira, adin-mailaren arabera biltzen direnak eta irakasle baikoitzeko gehienez jota 10 ikasle dituztenak.

Gabon hauetan Kids&Us-eko ikasleek Jack Frost-en neurritz kanpoko boterea ezagutuko dute: elurra eta izotza edonon eta toki guztietan sor ditzake! Berari esker, munduko neska-mutil guztiek izotz gainean patinatu dezakete eta baita gerrak eta panpinak egin elurrarekin. Gainera, Jack-ek oso berezia den pertsonaia aurkeztuko dizkie, hotz handia egiten duen tokian bizi den bat: Yetia!

Abenduaren 26tik 30era  
Urtarrilaren 2tik 5era

2 urtetik aurrera

  
**Kids&Us**<sup>®</sup>  
school of english *Natural English*